



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko irailaren 22a

77. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru Lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Nafarroako kooperatibei buruzkoa (2. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Adierazpen instituzionala, Ekialde Hurbileko egoera dela eta. Eledunen Batzarrak onetsia (32. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Galdera, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak FMko bi lizentzien adjudikazioa berretsi izanari buruzkoa, iragan abenduaren 22an emandako epaiak aurreko adjudikazioa baliogabetzat jotzen bazuen ere, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egin (33. or.).

—Galdera, Osasun kontseilariak Tuterako Reina Sofia Ospitalean alergologia zerbitzua ezartzeko eskaerari erantzuteko eginiko urratsei buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egin (34. or.).

—Galdera, ehiza-espezieak harrapatzeak eragindako zirkulazio istripuen kasuetarako erantzukizun sistema bat ezartzen duen Nafarroako ehizari eta arrantzari buruzko Foru Legearen 86. artikuluan oinarrituta izapidetu diren espedienteei buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egin (34. or.).

#### I SAILA:

##### **Planak, komunikazioak eta programak:**

—Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, Nafarroako Foru Komunitatearen 2006ko egoerari buruzko eztabaida egiteko (36. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako kooperatibei buruzkoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko irailaren 18an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2006ko uztailaren 3an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako kooperatibei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**1.** Nafarroako kooperatibei buruzko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz tramitatzea.

**2.** Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Batzordearen esku uztea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2006ko urriaren 11ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2006ko irailaren 18an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

## **Nafarroako kooperatibeei buruzko Foru Lege proiektua**

### **ZIOEN AZALPENA**

Nafarroako Kooperatibei buruzko uztailaren 3ko 12/1989 Foru Legeak, indarra izan duen denboran, argi erakutsi du tresna eraginkorra izan dela gure erkidegoan kooperatiben mugimendua-

ren defentsarako, Europar Batasunean sartzeko ekarri dituen erronken aurrean, eta lagungarria ere xede horretarako behar ziren bitarteko juridiko-ekonomikoak ezartzeko.

Izan ere, lege testu horrek, beste autonomia erkidego batzuetako sozietate kooperatiboen arautze juridikorako alderdi askotan erreferente izan baita, bereziki nekazaritzako kooperatiben arloan, ase egin ditu, hein handi batean, aldarrikatu zen garaian sortu zituen itxaropenak.

Hala eta guzti ere, argitaratu zenetik ia hamar urte iragan direlarik, beharrezkoa da testu hori gaurkotzea, aintzat harturik Nafarroako kooperatiben sektoreetatik helarazi dituzten eskaerak, batez ere nekazaritzaren mundutik, kooperatibak birmoldatzeko planari erantzuteko; horrenbestez, foru lege honek zenbait berrikuntza ekarriko ditu Nafarroako Kooperatiben lehengo Foru Legearen aldean. Hauexek dira, laburbildurik:

– Lan elkartuko kooperatiba bat eratzeko gutxi-eneko bazkide kopurua bost izatetik hiru izatera jeitsi da, hartara erraztuko da horrelakoak eratu eta gizarte ekonomiako enpresetan lanpostuak sortzea.

– Bazkide lankide izateko kasuak gehitzea.

– Era berean, entitate horietan egin beharreko inbertsio politika zehazteko ahalmena Batzar Orokorraren esku uzteko muga igo da, ibilgetuaren eskurapen-balioaren ehuneko 25 izatetik ehuneko 50era, eta kooperatibetako zuzendaritza kontseiluen ahalmenen kasuan ere muga portzentaje hori bera jaitzi da.

– Bazkide ez diren pertsona kualifikatuak kontseiluko kide izendatzeko baimena ematen da, betiere horien kopurua kide guztien herena baino txikiagoa bada.

– Agindu berriak ezarri dira bigarren mailako kooperatibak egungo beharretara egokitze, sozietatearen kapitalaren araubideari, funtsei eta aplikatzekoak zaizkien gainerako alderdi ekonomikoekin dagokienez.

– Kooperatibak birmoldatu, integratu eta berriz abiarazteko prozesuetarako finantzabide berriak sustatzen dira, nekazaritzako kooperatiben sektorea berregituratzeko prozesuaren barruan, haien funtsen kargura.

– Kooperatibaren tokia indartu da bere bazkideekiko, ekitaldi ekonomiko zehatz batean galerak daudenerako.

– Kooperatibak sozietate zibil eta merkataritzako sozietate eraldatzearen gaineko arauak ezarri dira, bai eta alderantziz ere, kooperatibak ez diren sozietateak eta elkarteak sozietate kooperatibo bilakatzeko alegia.

– Nekazaritzako kooperatiben azpimota desberdinen sozietate helburuari ñabardura batzuk erantsi zaizkio.

– Nekazaritzako kooperatiben kasuan, bazkideak Batzar Orokorrean eman beharreko botoaren ponderazioa bostetik hamarrera igo da, eta gutxienezkoa hiru izanen da.

– Baimena ematen da 50 bazkide langile baino gehiagoko lan elkartuko kooperatibetan gizarte kontseilua izateko.

– Boto ponderatua arautu da zerbitzu-kooperatibetarako.

– Gizarte ekimeneko kooperatibak ezartzen dira, Nafarroako Kooperatiben uztailaren 2ko 12/1996 Foru Legea gizarte ekimeneko kooperatiben araubidea gehitzeko xedearekin aldatu zuen apirilaren 11ko 5/2006 Foru Legeak haien inguruan ezarritakoa erantsiz.

– Honako figura juridiko hauek arautzen dira: kooperatiba-taldea, kooperatiba mistoa eta kooperatiba integrala.

– Azkenik, uztailaren 16ko Kooperatiben 27/1999 Lege Orokorrean egokitzen da, aplikazio esparruari dagokionez, foru lege hau aplikatzekoa izanen baita helbidea Nafarroako Foru Komunitatean izan eta jarduera kooperatibizatua nagusiki bertan betetzen duten sozietate kooperatiboak.

Foru lege hau eman da abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak, Nafarroako foru eraentza birrezarri eta hobetzeari buruzkoak, 44.27 artikuluan, Kooperatiba, Gizarte Segurantzari sartu gabeko mutualitate eta positoen arloan, gai horretan legeria orokorrak dioen arioren, Foru Komunitateari eskuordeturiko eskumen osoaz baliatuz.

Foru legearen egitura hau da: 87 artikulua, hiru titulu, hiru xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta lau azken xedapen.

## I. TITULUA Kooperatibak oro har

### I. KAPITULUA Kooperatiben araubide orokorra

#### 1. artikulua. Aplikazio esparrua.

Honako foru lege hau aplikatuko da ohiko sozietate-jarduna nagusiki Nafarroan duten kooperatibetan, hirugarrenekiko harremanak edo haien xederako jarduera instrumentalak lurralde horretatik kanpo betetzen badira ere.

#### 2. artikulua. Kontzeptua eta ezaugarriak.

Kooperatibak sozietateak dira, antolaketa eta funtzionamendua Nazioarteko Kooperatiba Aliantzak emaniko printzipioetan oinarrituak dituztenak, foru lege honetan ezarritako moduan, eta baterako enpresen araubidean edozein jarduera ekonomiko eta sozial egiten dutenak, betiere bere kideen zerbitzura eta komunitatearen mesedetan.

#### 3. artikulua. Izena.

1. Sozietate kooperatibo guztien izenetan "sozietate kooperatiboa" edota laburbilduz, "S. Koop." agertuko da nahitaez.

2. "Kooperatiba" izena ez dezake hartu beste ezin entitatek, sozietatek edo enpresak.

3. Ezein sozietate kooperatibok ez dezake hartu jadanik eraturik dagoen beste baten izen berbera edota harekin nahasgarria izan daitekeena.

#### 4. artikulua. Helbidea.

Foru lege honen menpeko kooperatibek Nafarroan izan beharko dute beren sozietatearen helbidea.

#### 5. artikulua. Autonomia.

Sozietate kooperatiboek beraien estatutuak prestatu, onetsi eta aplikatuko dituzte autonomia osoz, eta debeku bakarrak foru lege honetan edo aplikatzekoak zaizkien beste xedapenetan ezarritakoak izanen dira.

#### 6. artikulua. Nortasun juridikoa.

Sozietate kooperatiboa eraturik geldituko da eta nortasun juridikoa bereganatuko du, eraketaren eskritura publikoa Nafarroako Kooperatiben Erregistroan inskribatzen den uanean.

#### 7. artikulua. Sozietatearen kapitala.

Foru lege honen II. Tituluko I. kapituluan araututako lehen mailako kooperatibetan, sozietatearen kapitala 1.500 eurokoa izanen da, gutxienez, eurotan emana, non ez diren foru lege honen 74. artikuluan arautzen diren hezkuntzako kooperati-

bak, horrelakoetan sozietatearen gutxieneko kapitala 600 eurokoa izanen baita.

Sozietatearen kapitalari bazkide bakoitzak egin beharreko ekarpena 60 eurokoa izanen da gutxienez, non ez den aipatutako hezkuntzako kooperatiba horietako bat, horrelakoetan bazkideek ez baitute inolako ekarpenik egin beharrik.

Kooperatiba eratzen den unean kapital osoa kooperatibako bazkide sustatzaileek izenpetuta egon beharko da, eta horren ehuneko 25, gutxienez, ordainduta.

#### **8. artikulua.** Erantzukizuna.

1. Bazkideen erantzukizuna mugatua edo mugagabea izanen da, estatutuek zehazten duten moduan. Horri buruzko xedapen espresurik ez badago, sozietateak hirugarrenekin dituen zorren gainean erantzukizun mugatua izanen dute bazkideek, hain zuzen ere sozietatearen kapitalean izenpetutako ekarpenetara mugatua, ekarpen horiek ordaindu gabe ala ordainduta izan.

2. Bazkideen erantzukizuna baterakoa edo solidarioa izanen da, estatutuek zehazten duten modura. Horri buruzko xedapen espresurik ez badago, bazkideen erantzukizuna baterakoa dela ulertuko da.

#### **9. artikulua.** Batzordeak, atalak eta taldeak.

Estatutuetan ezarri ahal da kooperatibaren barrenean batzorde, atal eta taldeen eraketa, funtzionamendua eta jarduna, betiere eginbehar berezitarako, zein bere ustiapen kontuarekin eta ezertan ukatu gabe kooperatibaren erantzukizun orokor eta bateratua.

#### **10. artikulua.** Hirugarrenekiko eragiketak.

1. Estatutuetan hala jasota badago, kooperatibek eragiketak bete ditzakete bazkide ez diren pertsona fisiko nahiz juridikoekin, baina eragiketa horien emaitzen ehuneko 50 derrigorrezko erreserba funtserako izanen dira dute eta gainerako ehuneko 50 borondatezko erreserba funtserako.

2. Betebehar horretatik salbuetsirik daude lan elkartuko kooperatibak, hain zuzen ere horien helburua hirugarrenekin eragiketak egitea baita.

#### **11. artikulua.** Kooperatibako harremanak.

1. Ez dira salmentatzat hartuko sozietatearen helburuak lortzeko kooperatibek beren bazkideei emaniko ondasunak eta zerbitzu emateak, kooperatibak berak sortutakoak nahiz hirugarrenei erositakoak izan.

2. Ez dira salmentatzat hartuko, halaber, bazkideek kooperatibari emaniko ondasunak eta pro-

duktuak, horiek sozietatearen helburuak lortzeko emanak baldin badira.

## **II. KAPITULUA** **Kooperatiben eraketa**

### **12. artikulua.** Eraketaren batzarra.

1. Sozietate kooperatibo bat sortzeko, haren eraketaren batzarrak, sozietatearen sustatzaileek osatuak, erabaki batzuk hartu beharko ditu ondoko gai hauetaz behinik behin:

a) Sozietatearen estatutuen proiektuaren onepena.

b) Sozietatearen kapitaleko ekarpenak izenpetu eta ordaintzeko modua eta epeak.

c) Egin gogo den sozietate kooperatiboa inskribatzeko behar diren egintzak gauzatuko dituzten kudeatzailea edo kudeatzaileak izendatzea.

d) Sozietatea eratu ondoren, lehen Zuzendaritza Kontseiluko kideak izendatzea sustatzaileen artean, baita kontu-hartzailea edo kontu-hartzaileak ere, betiere foru lege honetan xedatzen denari jarraikiz.

e) Eraketaren eskritura egiletsi behar dutenak izendatzea sustatzaileen artean.

2. Eraketaren batzarraren aktan hartutako erabaki guztiak eta sustatzaileen zerrenda jasoko dira, adierazirik bakoitzaren nortasunaren gaineko datu zehatzak, eta kooperatiban zein modu, baldintza eta izaerarekin sartu diren.

Eraketaren batzarrean idazkari lanetan diharduen sustatzaileak aktaren ziurtagiria emanen du, beti ere lehendakariaren ikus-onetsiarekin.

3. Kooperatibak bere inskripzioa lortzen ez duen bitartean, izenaren ondotik "eratzear" hitza erantsi beharko du.

4. Izendatutako kudeatzaileek sozietate izan nahi denaren izenean jardungo dute eta hura eratzeko behar diren jarduera guztiak aurrera eramane dituzte.

Inskripzioa egin baino lehen, kooperatiba proiektu horren izenean eginiko egintzak eta sinatzen diren kontratuak betetzearen gaineko erantzukizun solidarioa izan dute horien egileek.

Aipatu egintza eta kontratu horiek kooperatibak hartuko ditu bere gain, ondorio guztietarako, inskripzioa egiten den egunetik hiru hilabeteko epean eginiko Batzar Orokorak onetsi ondoren.

**13. artikulua.** Estatutuak.

1. Sozietate kooperatiboaren estatutuak foru lege honetan xedatutakora egokitu beharko dira, eta gutxienez honako alderdi hauek jaso beharko dituzte:

- a) Izena.
- b) Sozietatearen helburua.
- c) Helbidea.
- d) Iraupena.
- e) Jardunaren lurralde esparrua.

f) Sozietatearen gutxienerako kapitala, titularen balioa, bazkide bakoitzaren gutxienerako ekarpena eta sozietatearen partaidetzak eskualdatzeko sistema.

g) Soberakinak banatzeko irizpideak, ongi zehaztuz gutxienez zer portzentaje sartu behar den derrigorrezko erreserba funtsean eta zein hezkuntza eta sustapen sozialekoan, azken funts honetakoak zertarako izanen diren aipatuz.

h) Sozietate kooperatiboaren gobernu organoaren araubidea, eta bertan zehaztu beharko dira osaketa, eginkizunak, jarduteko prozedurak, erabakietan behar diren gehiengoak, boto eskubidea eta bazkideen bermeak edo atxikienak, horrelakorik balitz.

i) Bazkideak onartu, haiei baja eman eta sozietatetik kanporatzeko betebeharrak objektiboak eta prozedura, ekarpenak itzultzeko eskubidea eta horretarako epeak.

j) Sozietatearen diziplina arauak.

k) Sozietate kooperatiboa desagiteko eta likidatzeko arrazoiak eta prozedura.

l) Foru lege honek ezarritako beste edozein betebeharrak.

2. Estatutuak garatu daitezke barne araubideko erregelamenduen bidez.

**14. artikulua.** Kooperatiben alde aurreko kalifikazioa.

Foru lege honetan ezarritakoari jarraikiz eginkizun estatutuaren proiektuaren aldeko kalifikazioa eskatu beharko diote sustatzaileek Nafarroako Kooperatiben Erregistroari.

**15. artikulua.** Eraketaren eskritura.

Sozietate kooperatiboa eskritura publikoaren bidez eratuko da; eraketaren batzarrean aukeraturako pertsonen edo sustatzaile guztien egiletsiko dute eskritura hori, horretarako hartutako erabakiei jarraikiz.

Sozietate kooperatiboaren eraketaren eskritura publikoak honako hauek jaso beharko ditu:

a) Sustatzaileen zerrenda eta haien nortasunari buruzko datuak.

b) Sozietate kooperatiboa sortzeko borondatea, estatutuaren bertan adierazten diren helburu eta irispidearekin.

c) Sozietatearen estatutuak, Nafarroako Kooperatiben Erregistroaren aldeko kalifikazioarekin.

d) Adierazpena, agerraziz sustatzaileek ordaindu dutela, gutxienez, bazkide izateko derrigorrezko ekarpenaren ehuneko 25, baita ekarpenaren gainerakoa ordaintzeko modua eta epea ere.

Ordaindutako ekarpen guztien batura ez da izanen estatutuaren zehaztutako gutxienerako kapitalaren zenbatekoa baino txikiagoa.

e) Sozietatearen eraketan, lehen Zuzendaritza Kontseiluko kide izanen diren pertsonen izendapena, baita kontu-hartzailearena edo kontu-hartzaileena ere.

f) Bazkide bakoitzak emanikoaren zenbatekoa zehaztea, dirua, ondasunak edo eskubideak direla, adieraziz dirutan ematen ez diren ekarpenen balorazioa eta bazkide bakoitzak jasotako titulu kopurua.

g) Sozietatearen helburu nagusia.

**16. artikulua.** Inskripzioa.

Sozietatearen eraketaren eskritura egiletsi eta bi hilabeteko epean, egiletsiek izendatutako kudeatzaileek edo sustatzaileek Nafarroako Kooperatiben Erregistroan inskribatzea eskatu beharko dute.

### III. KAPITULUA

#### Kooperatiben Erregistroa

**17. artikulua.** Nafarroako Kooperatiben Erregistroa.

1. Nafarroako Kooperatiben Erregistroak bere gain hartuko ditu artikuluko honen 2. idatz-zatian sozietate kooperatiboei eta haien elkarteei buruz aipatzen diren egintzen kalifikazio, inskripzio eta ziurtapen eginkizunak.

Erregistroa publikoa da eta haren funtzionamendua legezotasun, legitimazio eta publizitate formal eta materialaren printzipioei lotuko zaie.

2. Erregistroan ondoko egintza hauek inskribatuko dira nahitaez:

a) Entitatearen eraketa.

- b) Bat-egitea eta zatitzea.
- c) Deskalifikazioa.
- d) Desegitea eta likidazioa
- e) Sozietatearen estatutuen aldatu eta foru lege honetara egokitzea, haren lehenbiziko xedapen iragankorrean ezartzen den moduan.
- f) Kudeaketa eta administrazio ahalordeak egilestea, bai eta horien aldaketa, ezeztapena eta ordezkapena.
- g) Zuzendaritza Kontseiluko kideak izendatu, kargutik kendu eta ezeztatzea, baita kontu-hartzaileena eta desegite prozesuko bazkide likidatzaileena ere.
- h) Sozietatearen helbide aldaketa.
- i) Foru lege honen 79. artikuluan aipatzen diren kooperatiben arteko akordioak

3. Arestiko a), b), c), d), e) eta f) letretako egintzak interesatuak eskatuta inskribatuko dira; eskabidearekin batera egintza aipatzen duen eskritura publikoaren kopia baimendua eta kopia arrunta aurkeztu beharko dira. Ofiziosz ere inskribatu daitezke, ebazpen judizial edo administratiboaren ondorioz, salbu eta eraketa egintza denean.

4. g), h), eta i) letretako egintzak inskribatzeko aski izanen da Zuzendaritza Kontseiluaren erabakiaren egiaztagiria, kontseiluko idazkariak eta lehendakariak sinatua; sinadurak notarioak egiazaturik edo Nafarroako Kooperatiben Erregistroko arduradunak edo entitatearen helbidea zein udalengan dagoen bertako idazkariak kautoturik egon beharko dira.

5. Eraketa egintzaren kasuan izan ezik, sozietate kooperatiboek aginduzko dokumentazioa igorri beharko dute Erregistroa, hogeita hamar egun naturaleko epean, egintza gauzatu eta biharamunetik hasita.

6. Honako agiri hauek gordailuan utzi beharko dira Nafarroako Kooperatiben Erregistroan nahitaez, inskripzio liburuan dagokion erregistroko idaztoharra eginez, bertan jasotako datuak ziurtatzeko edo eskatzen dituenari erakusteko:

- a) Ekitaldi ekonomiko bakoitzaren kontuak, Batzar Orokorrak onetsiak, balantzea, galeren eta irabazien kontua eta jardueren txostena biltzen dituztenak eta unean uneko araudi indardunari jarraikiz eginak.
- b) Entitatearen trafikoari buruzko liburuak eta dokumentazioa, likidazioa gertatzen denean, foru lege honen 62. artikuluan ezarritakoa betez.

- c) Egiten diren barne araubideko erregelamenduak.

Aipatu egintzen erregistroko idaztoharra egiteko aski izanen da 2. idatz-zatiko g), h) eta i) letretan aipatzen den ziurtagiria aurkeztea, erregistroan gordailuan utzi beharreko dokumentazioarekin batera.

7. Sozietate kooperatiboek bi hilabeteko epean utzi beharko dituzte agiriak gordailuan, bertan jasotako egintzak onetsi zituen Batzar Orokorra egin zenetik hasita.

#### **18. artikulua.** Segidako traktua.

Kontseiluko kideen, kontu-hartzaileen eta likidatzaileen izendapenak eta kargu-uzteak inskribatzeko beharrezkoa izanen da aurretik gertatutakoak inskribatuak izatea; aparteko baldintzak biltzen direnean nabaritasun aktaren bidez egin daiteke inskripzio hori.

#### **19. artikulua.** Erregistro liburuak.

Nafarroako Kooperatiben Erregistroan honako liburu hauek izanen dira:

- a) Egunkaria.
- b) Sozietate kooperatiboak inskribatzekoa.
- c) Kooperatiba elkarteak inskribatzekoa.

### **IV. KAPITULUA** **Bazkideak**

#### **20. artikulua.** Bazkideak oro har.

1. Lehen mailako kooperatibek bost bazkide izanen dituzte gutxienez. Arau orokor horretatik kanpo daude lan elkartuko kooperatibak, hiru kide izanen baitituzte gutxienez.

Bigarren mailakoak edo maila handiagokoak eratzeko aski izanen da bi kooperatiba biltzea.

2. Pertsona fisikoak nahiz juridikoak izan daitezke lehen mailako kooperatibetako bazkide. Ino-laz ere ezin izanen da lehen mailako kooperatibarik eratu pertsona juridikoekin bakarrik.

#### **21. artikulua.** Lan-bazkideak.

1. Lan-bazkideak dira sozietate jarduera kooperatiban beren lana eskaintzea duten pertsona fisikoak.

2. Kooperatiben estatutuetan aurreikusirik egon daiteke zein sistema erabiliko den langileek lan-bazkide izan daitezen lanean hasten diren unetik beretik. Aitzitik, horretatik kanpo geldituko dira lan elkartuko kooperatibak eta nekazaritzakoak, lurra edo bestelako ekoizpen-bitartekoak batera lantzeko helburua dutenak, bazkideen lanaren bidez

nekazaritzako enpresa edo ustiategi bat sortu eta kudeatzeko.

3. Lan-bazkideen eta gainerakoen botoen kopurua, osotara, Batzarreko boto kopuru osoaren bostena baino txikiagoa izanen da.

4. Era berean, kooperatibetako estatutueta aurreikusirik baldin badago lan-bazkideak onartzea, orduan irizpideak ere finkatu beharko dira bertan bazkide horiek kooperatibaren betekizun eta eskubide ekonomikoetan parte har dezaten, sozietate kooperatiboa hezurmamitzen duten printzipioekin bat.

5. Lan-bazkideei foru lege honetan lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileentzat ezartzen diren arauak aplikatuko zaizkie.

## **22. artikulua.** Bazkide izaera hartzea.

1. Estatutueta ezarriko da bazkide izaera eskuratzeko behar diren baldintzak.

2. Onarpen eskaera idatziz eginen zaio Zuzendaritza Kontseiluari, eta horrek eskabidea aurkeztu denetik gehienez ere bi hilabeteko epean hartuko du erabakia. Epe hori ebazpen espresurik jakinarazi gabe iraganik, eskaera onartu dela ulertuko da.

Onarpena ez da ukatuko ideia politiko, sindikal, erlijioso edota arrazari lotutako arrazoiengatik, ez eta hizkuntza, sexu edo egoera zibilar buruzkoengatik ere.

Dena den, onarpena ukatuz gero, eskatzaileak errekurtsioa jar dezake Batzar Orokorrean hogeita hamar eguneko epean ukoa jakinarazten denetik, eta Batzarrak egiten duen lehenbiziko bilkuran eman beharko du horri buruzko ebazpena.

3. Bazkide izaera eskuraturik, kooperatibako kide izanen da denbora mugagaberako.

Nolanahi ere den, denbora mugatuko sozietate loturak ezarri ahal dira, betiere estatutueta aurrekusi eta onarpenaren unean hala erabakitzen bada. Lotura horietatik sortzen diren eskubide eta betebeharrak kooperatibako gainerako bazkideek dituztenen parekoak izanen dira eta estatutueta arautuak egonen dira.

Kooperatibarekin aldi baterako lotura duten bazkideen kopurua ez da mugagabeko bazkideen kopuruaren bostena baino handiagoa, ez eta haien botoen kopurua muga horretatik gora egonen ere.

## **23. artikulua.** Baja motak eta erantzukizuna.

1. Borondatezko baja: Edozein bazkidek baja har dezake bere borondatez kooperatiban, betiere

estatutueta aurrekusiako prozedura betetzen bada eta Zuzendaritza Kontseiluari gutxienez hiru hilabete lehenago horren berri ematen badio. Kontseiluak erabakiko du baja hori arrazoizkoa edo arrazoigabea den, kasuan biltzen diren inguruabarrak aztertu ondoren.

Dena den, estatutueta eska daiteke bazkide izateari eustea gehienez ere hamar urtez onarpena gertatu zenetik; betebeharrak horretatik salbuetsirik egonen dira estatutu horietan aurrekusiako arrazoizko bajaren kasuan dauden bazkideak.

2. Derrigorrezko baja: Bazkide izaera galduko du derrigorrez estatutueta edo foru lege honetan kasuan kasuko kooperatibako bazkide izateko eskatzen diren baldintzak galtzen dituenak edo kooperatibaren esparruari dagokionez biltzen ez dituenak.

Zuzendaritza Kontseiluak erabakiko du derrigorrezko baja, ofizios edo edozein bazkidek eskatuta, aurretik interesatuari entzutea emanda.

3. Bazkide baten baja gertatzen denean, lehenagotik kooperatibarekin hartuak zituen obligazioen erantzukizuna bost urtez luzatuko da gehienez, bazkide izaera galdu zuenetik hasita.

Obligazio horiek kalkulatzeko, kontuan hartuko da entitateak kapitalizatu gabe duen zenbatekoa, bajaren egunaren hurrengo balantzeari jarraikiz, beti ere Batzar Orokorrek onetsi ondoren; bazkideari dagokionez, kontuan hartuko da onetsitako obligazio eta inbertsio horietatik zer portzentaje ordaindu beharko zukeen bazkide izaten segituz gero, bazkideak azken hiru ekitaldi ekonomikoetan betetako lanaren arabera kalkulaturik.

Kapitalizatu gabeko zenbatekoa sozietatearen ibilgetuen eta baliabide berekien arteko aldea zehaztuz kalkulatu da.

Dena den, bazkidea erantzulea da bere baja gertatu aitzin kooperatibak izan zituen galeretan, dagokion kuotaren arabera. Kuota hori baja gertatu eta hurrengo Batzar Orokorrean onesten den balantzearen gainean kalkulatu da.

Arestiko lerroaldean xedatutakoa gorabehera, bazkidea hiltzen bada eta eskubidedunek ez badute bazkide izan nahi, arestian aipaturiko obligazioengatik egileari zegokiokeen erantzukizuna haiek aitortua zuten sozietatearen kapitalaren zenbatekora mugatuko da.

## **24. artikulua.** Kanporatzea.

1. Estatutueta tipifikatua dagoen hutsegite larria dela-eta, bazkide bat kooperatibatik kanporatzeko erabakia Zuzendaritza Kontseiluak hartuko

du, espedientea ireki eta interesatuari entzutea eman ondoren.

Erabaki horren aurka errekurtsua jar daiteke Batzar Orokorrean, estatutuetan eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan aurreikusten den moduan, eskumen jurisdikzionala ezertan ukatu gabe. Batzar Orokorrak isilpeko bozketa baten bidez ebartziko du errekurtsua, hura aurkeztu eta hurrengo bilkuran.

2. Lan elkartuko kooperatibetan eta gainerako kooperatibetan, lan-bazkideei dagokienean, bazkideea kanporatzeko erabakia Zuzendaritza Kontseiluak hartu orduko izanen da indarrean.

3. Kanporatzea gertatzen denean, bazkidearen erantzukizuna arestiko artikuluan zehaztutakoa izanen da.

#### **25. artikulua.** Bazkideen eskubideak.

Kooperatibetako bazkideek honako eskubide hauek izanen dituzte:

a) Kooperatibaren jardueretan eta zerbitzuetan parte hartzeko eskubidea

b) Batzar Orokorrak hartzen dituen erabakietan parte hartzeko eskubidea, hitzarekin eta botoarekin, eta bereziki, sozietatearen organoetako karguak hautatu eta horietarako hautatua izatea.

c) Sozietate kooperatiboaren araubidetik sortzen diren ordain ekonomikoak hartzeko eskubidea, ekarpenak gaurkotzeko eta itzulketak hartzeko, ekarpen horien korritu mugatua hartzeko eskubidea, halakorik balego, eta baja gertatzen bada itzulkinak eta likidazioa hartzeko eskubidea.

d) Legezko arauetatik eta entitatearen estatutuetatik sortzen diren gainerakoetarako.

#### **26. artikulua.** Informazio eskubidea.

1. Kooperatibetako bazkideek eskubidea dute Zuzendaritza Kontseiluari informazioa eskatzeko kooperatibaren inguruabar ekonomiko eta sozialei buruz, jarduerari buruz eta kooperatibari eragiten dion edozein gorabeheraren inguruan.

2. Informaziorako eskubidea bermatzeko, ondoko neurri hauek hartuko dira:

a) Zuzendaritza Kontseiluak bazkide guztiei banatuko die estatutuen testua eta erregelamendua, horrelakorik balitz. Halaber, sartu diren aldaketa guztiak, Batzar Orokorretako aktak eta Zuzendaritza Kontseiluaren erabakien kopia egiaztatua ere, erabaki horiek modu pertsonalean edo partikularrean eragiten dioten bazkideak eskatuko balu.

b) Era berean, Zuzendaritza Kontseiluak, lehendakariak, kontu-hartzaileek eta edozein organok bazkideak eskatzen duen informazio guztia eman beharko dute aurreko letran ezarritako kasuan.

c) Urtean bi aldiz, Zuzendaritza Kontseiluak txosten bat aurkeztuko die bazkideei kooperatibaren jardunari buruz.

d) Informaziorako eskubidea zuzenean erabil daiteke batzarrean edo idatzi arrazoituaren bidez, noiznahi.

3. Eskatutako informazioa ukatu daiteke, emateak kooperatibaren interes legitimoak arrisku larrian jartzen baditu edo Zuzendaritza Kontseiluaren iritziz eskabidea errepikatua edo arrazoirik gabea bada.

Hala ere, artikulua honen 2. idatz-zatian ageri diren kasuetako batean eskatutako informazioa ezin izanen da ukatu Batzar Orokorrean ematekoa bada eta informazio eskaera bertaratu direnen eta ordezkatuaren botoen erdiak baino gehiagok aldeztatu badu.

4. Informazioa emateko beharkizuna betetzen ez bada, bazkideak erreklamazioa aurkez dezake jurisdikzio arruntean.

#### **27. artikulua.** Bazkideen betebeharrak.

Bazkideek legeetatik eta estatutuetatik sortzen diren betebeharrak izanen dituzte, bereziki ondoko hauek:

a) Parte-hartze osoa izatea kooperatibaren jarduera eta zerbitzuetan, estatutuetan aurreikusi eta gobernu organoen erabakietan garatutako moduan.

b) Batzar orokorretara joatea, haren erabakiak onartu eta betetzea eta eskeintzen zaizkien kargu eta eginkizunak onartzea, aski arrazoituriko ezinbesteko kasuetan salbu.

c) Kooperatibari leial izatea; haren gobernu organoei begirunea erakustea; jarduera, proiektu eta planekiko lanbide-sekretua gordetzea hirugarrenetik; lehia mota guztiak saihestea eta bazkide izaeraz baliatzeko aukerak jarduera espekulatibo, iruzurrezko edo legearen aurkakoak betetzeko.

d) Sozietatearen kapitalari eginiko ekarpenak aurreikusitako moduan eta epeetan ordaintzea.

#### **28. artikulua.** Diziiplina araubidea.

Estatutuetan ezarriko dira sozietatearen diziiplina neurriak, hutsegite eta zehapen motak, horien preskripzioa, zehapen prozedura eta errekurtsuak.



**29. artikulua.** Atxikiak.

1. Zuzendaritza Kontseiluak honakoei eman diezaieke atxikiaren izaera: entitatearen bazkide izateari justifikaturiko arrazoiengatik uzten diotenei, bazkidearen heriotza dela medio haren esku-bidedun direnei eta estatutuen arabera aukera hori dutenei, antzeko egoeran egoteagatik.

2. Pertsona horiek, fisiko nahiz juridikoek, idatzizko eskaera egin beharko diote Zuzendaritza Kontseiluari. Organo horrek erabakia hartu beharko du gehienez ere bi hilabeteko epean, eskaera aurkezten denetik. Epe hori ebazpen espresurik jakinarazi gabe iraganik, atxikia izateko eskaera onartu dela ulertuko da.

3. Sozietatearen estatutuetan arautuko da figura horri aplikatzekoa zaion araubide juridiko eta ekonomikoa, baina gutxienez eta edozein kasutan ondoko berezitasun hauek izan beharko ditu:

a) Sozietatearen kapitalari eginiko ekarpenetan itundua dagoen korritua hartzeko eskubidea izanen dute, baita ekarpen horiek gaurkotzeko eta itzulketak hartzeko ere, bazkideen baldintza berdinetan.

b) Ez dute itzulkinik hartzeko eskubiderik izanen, baina kooperatibaren zerbitzuak erabili ahal dituzte.

c) Batzar orokorretan parte hartzeko eskubidea izanen dute, hitzarekin baina botorik gabe, eta ezin izanen dira Zuzendaritzako Kontseiluko kide, kontu-hartzaile edo likidatzaile izendatu, bai ordea, entitateko ohorezko karguetan aritu, estatutuetako arauetan horrelakorik aurreikusirik dagoenean.

d) Haien erantzukizuna sozietatearen kapitalari eginiko ekarpenetara mugatuko da.

e) Kooperatibaren nondik-norakoaren gaineko informazioa hartzeko eskubidea izanen dute, foru lege honen 26. artikuluan aurreikusitako moduan.

f) Atxikiak ez dute sozietatearen kapitalerako derrigorrezko ekarpen berririk egin beharko, baina Batzar Orokorrak baimena eman ahal die borondatezko ekarpenak egiteko.

**30. artikulua.** Bazkide laguntzaileak.

1. Bazkide laguntzaileak izanen dira foru lege honen 79. artikuluan aipatzen den kooperatiben arteko akordioa sinatua duten kooperatibak eta haien bazkideak. Era berean, halakoak izanen dira kooperatibek kontrolaturiko sozietateak eta entitate publikoak.

2. Kooperatibaren sozietate helburua osotara gauzatu ez baina hura lortzen laguntzen duten pertsona fisikoek ere bazkide laguntzailearen izaera

eskuratu ahal dute. Horien eskubideak eta betebeharrak sozietatearen estatutuetan xedatutakoaren arabera arautuko dira eta, horiek arautu ez dutenetan, aldeek hitzartutakoari lotuko zaizkio.

3. Estatutuetan arautuko da bazkide laguntzaileen araubide juridikoa, ondoko printzipio hauei jarraikiz:

a) Gainerako bazkideek dituzten eskubide eta betebeharrak izanen dituzte sozietatearen esparruan.

b) Batzar Orokorrean nola Zuzendaritza Kontseiluan dituzten boto guztien kopurua ez da izanen sozietateak organo bakoitzean dituen botoen bostena baino altuagoa, foru lege honen 65. artikuluan aurreikusitakoa ezertan ukatu gabe.

c) Bazkide laguntzaileek, jarduera kooperatibizatuan duten parte-hartzearen arabera, eskubidea izanen dute kooperatibaren emaitzetan parte hartzeko, estatutuetan espreski hala aurreikusirik badago.

d) Bazkide laguntzaileek bazkide diren kooperatiban izanen dute ordezkaritza. Bigarren mailako kooperatiben kasuan, 79.2 artikuluan aurreikusitako boto proportzionala bazkide laguntzaileek jardueran duten parte-hartzearen arabera izanen da, eta aurreko b) letran azaldutako muga ez da izanen.

**V. KAPITULUA****Sozietate kooperatiboaren organoak****31. artikulua.** Sozietatearen organoak.

Sozietate kooperatiboaren organoak ondoko hauek dira:

a) Batzar Orokorra.

b) Zuzendaritza Kontseilua.

c) Kontu-hartzailea edo kontu-hartzaileak.

**32. artikulua.** Batzar Orokorra.

Batzar Orokorra bazkideek osatzen dute eta, halakoak daudenean, atxikiak eta bazkide laguntzaileak. Sozietate kooperatiboaren goi-organo deliberatzaile eta erabaki-hartzailea da, eta sozietatearen borondatea erabakien bidez adierazten du. Erabaki horiek lotesleak eta nahitaez bete beharrekoak dira disidenteentzat eta batzarrera agertu ez direnentzat ere.

**33. artikulua.** Batzar Orokorraren eskumenak.

1. Batzar Orokorrak ondoko eskumenak izanen ditu:

a) Zuzendaritza Kontseiluko kideak eta kontuhartzaileak hautatu eta kargutik kentzea.

b) Kontseiluaren kudeaketa aztertzea eta kontuak, balantzeak, soberakinen banaketa, itzulkinak eta galeren egozketak eta egin gogo diren inbertsioen politika onestea, betiere inbertsio horiek kooperatibaren ibilgetuaren eskurapen-balioaren eta foru lege honen 44. eta 46. artikuluetan ezarritako baliabide berekien ehuneko 50etik gorakoak badira.

c) Onestea barne araubideko erregelamendua, balego, eta antolaketa eta funtzionamendurako behar diren erabakiak hartzea, bai eta sozietate kooperatiboaren bat-egite, desegite eta likidaziorako ere.

d) Estatutuak aldatzea.

e) Estatutuetan edo foru lege honetan emandako beste edozein eskumen.

2. Batzarrak ezin du aurreko idatz-zatiko a), b), c) eta d) letretan adierazitako gaien gainean duen eskumena eskuordetzea.

### **34. artikulua.** Motak.

Batzar Orokorrek arruntak edo bereziak izan daitezke.

Batzar Orokor arruntaren helburua da sozietatearen kudeaketa aztertzea, urteko kontuak onestea, bidezkoa bada, soberakinen edo galeren egozketaren gainean ebaztea, eta sozietate kooperatiboaren politika orokorra ezartzea.

Batzarra urtean behin eginen da gutxienez, ekitaldia itxi eta hurrengo sei hilabeteko epean.

Gainerako Batzar Orokor guztiak bereziak izanen dira.

### **35. artikulua.** Funtzionamendua.

1. Kooperatibak non duen helbidea, herri hartan eginen da Batzar Orokorra, edo Zuzendaritza Kontseiluak erabakitzen duen beste batean.

Lehenbiziko deialdian batzarra baliozkotasunez eratua dagoela ulertuko da sozietatearen botoen erdia baino gehiago bertaratuak edo ordezkatuak daudenean, eta bigarren deialdian, berriz, bertaratu kopurua kooperatiba bakoitzaren estatutuetan ezarritakoa denean.

Estatutuetan zehaztuko dira batzarrak egiteko arauak, deialdirako epeak eta publizitatea eta funtzionamendu normal baterako argibide guztiak. Dena den, ez da alde aurretiko deialdirik behar, bazkide, atxiki eta bazkide laguntzaile guztiak bertan egonda aho batez erabakitzen badute batzarra egitea, gai zerrenda finkatu ondoren.

Batzar Orokorretan Zuzendaritza Kontseiluko lehendakaria izanen da buru eta idazkari lanetan Kontseiluko idazkaria bera arituko da; finkatutako gai zerrendari eta estatutuetan aginduta dagoen prozedurari lotuta eginen da batzarra, eta bertan parte hartuko dute bazkideek, atxikiek eta bazkide laguntzaileek, haiek edo haien ordezkoez, eta gehenez ere bi bazkide ordeztean onartuko da.

2. Lehen mailako kooperatibetan, bazkide bakoitzak boto bat izateko eskubidea du, ezertan ukatu gabe foru lege honen 63., 65. eta 69. artikuluetan xedatutakoa.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa gorabehera, sozietatearen estatutuetan boto proportzionala eman ahal zaio kooperatiban dauden bazkide motetako bakoitzari. Era berean, bazkide mota bakoitzari soberakinen banaketaren portzentaje zehatz bat eman ahal zaio, betiere proportzionala jarduera kooperatibizatuan duten parte-hartzearekiko.

Bigarren mailako edo maila handiagoko kooperatibetan boto eskubidea 79. artikuluan ezarritakoa ari lotuko zaio.

3. Erabakiak biltzen dituen akta jasoko da, eta bertan agertu beharko dira boto-kontaktak eta lortutako gehiengoak; akta hori batzarrak berak onetsi beharko du ondoren edo, bestela, lehendakariak eta hiru bazkidek gutxienez, hamabost eguneko epean.

4. Batzarraren erabakiak bertan izan edo ordezkatuak diren botoen gehiengo soilaren bidez hartuko dira, salbu eta foru lege honetan edo estatutuetan bestela xedatzen bada.

**36. artikulua.** Sozietatearen erabakien aurkatea.

1. Lege maila duten lege edo arauen kontra sozietateak hartzen dituen erabakiak baliogabeak dira zuzenbidearen arabera eta edozein bazkidek aurkatu ditzake, deklarazioko epaiketa arruntaren bidez edo hurrengo idatz-zatian aurreikusten den prozedura bereziaren bitartez, eta hartan zehazten den epean.

2. Sozietateak estatutuen kontra hartzen dituen erabakiak edo kooperatibaren interesen kaltetan direnak, bazkide baten edo batzuen mesedetan, aurkatu ahal dira berrogei egun naturaleko epean, erabakia hartzen denetik edo Kooperatiben Erregistroan inskripzioa egiten denetik. Horretarako Sozietate Anonimoen Legearen testuategina onesten duen abenduaren 22ko 1564/1989 Errege Dekretuko 118. artikuluan zehazten den prozedurari ekingo zaio.

3. Aurkatze ekintza egiteko legitimaturik daude erabakiaren aurkako botoa aktan jaso dadin eskatu duten bazkideak, bertan ez direnak eta boto emateko eskubidearen ukazioa, ez-legezkoa, jaso duten haiek.

### **37. artikulua.** Zuzendaritza Kontseilua.

1. Zuzendaritza Kontseilua sozietate kooperatiboaren gobernu, kudeaketa eta ordezkaritza organoa da, eta foru lege honi eta estatutuei loturik arituko da.

Estatutuaren arauetan xedatutakoa batere ukatu gabe, Zuzendaritza Kontseiluak ondoko eskumen ordeztezinak ditu:

a) Kooperatibaren kudeaketarako jarduketaren jarraibide orokorrak finkatzea, betiere Batzar Orokorrak ezarritako politika orokorrari jarraikiz.

b) Inbertsioen politikaren plangintza egitea, Batzar Orokorrak ones dezan. Inbertsio proiektu batzuk batzarraren onespenerik gabe eraman ahal ditu aurrera, hain zuzen ere kooperatibaren ibilgutuaren eskurapen-balioaren edo foru lege honen 44. eta 46. artikuluetan ezarritako baliabide berekien ehuneko 50 gainditzen ez dutenak.

c) Batzar Orokorrari aurkeztea azalpen txosten bat, kudeaketa, kontu-ematea, itzulkinen aplikazioa edo galeren egozketa argitzen dituen.

d) Hirugarrenen aldeko fidantza edo abalak ematea baimentzea, eta bigarren mailako kooperatibetan sozietatearen funtsen 100eko 10 gainditzeden denean.

e) Berez berari dagokion enpresaren kudeaketa zein pertsona fisiko edo juridikori eskuordetudion, haien jarduera zuzenean eta etengabe fiskalizatzea.

f) Estatutuetan edo foru lege honen bidez emandako beste edozein.

2. Estatutuetan zehaztuko da Zuzendaritza Kontseiluan zenbat kide izanen diren, baina inolaz ere ez dira izanen hiru baina gutxiago.

Batzar Orokorrak isilpeko bozketaren bidez izendatuko ditu lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria eta Zuzendaritza Kontseiluko gainerako karguak. Horien agintealdia, estatutuetan finkatua baita, hiru urtetik sei urte bitartekoa izanen da.

Kontseiluko kideen izendapenak indarra hartuko du kargua onartzen duten unean, eta izendapen horiek Nafarroako Kooperatiben Erregistroan inskribatu beharko dira gertatu eta hurrengo hamar eguneko epean, izen-deiturak, nortasun nazionalaren agiriaren zenbakia, helbidea eta nazionalitatea agertaraziz.

Aurreko lerroaldeetan xedatutakoa gorabehera, sozietate kooperatiboaren bazkideak hamar baino gutxiago baldin badira, estatutuetan aurreikus daiteke administratzaile bakarra izatea, Zuzendaritza Kontseiluaren eginkizunak hartuko lituzkeena.

3. Sozietatearen estatutuetan aurreikusirik baldin badago, soldatapeko berrogeita hamar langile finko baino gehiago duten kooperatibetan horietako bat gutxienez zuzendaritza kontseiluko kide izan daiteke, enpresa batzordeak edo, horrelakorik ez balego, mugarik gabeko kontratua duten langileek hautatua.

Ere berean, estatutuetan onar daiteke bazkide ez diren pertsona kualifikatuak kontseiluko kide izendatzea, betiere horien kopurua kide guztien herena baino txikiagoa bada. Pertsonak horiek ez dira inola ere lehendakari edo lehendakariorde izendatuko.

4. Zuzendaritza Kontseilua baliozkotasunez eratua dagoela ulertuko da gutxienez kideen erdiak bertaraturik edo ordezkaturik daudenean, eta erabakiak gehiengo soilaren bidez hartuko dira. Lehendakaria edo idazkaria ez badago bertan, bertaratu direnen artean aukeratuko dira bilkura horretan haien eginkizunetan arituko direnak.

Zuzendaritza Kontseiluak hiru kide dituen kasuetan, aski izanen da haietako bi agertzea baliozkotasunez eratua egoteko.

Berdinketa gertatuz gero, lehendakariaren botoa erabakigarria izanen da.

5. Estatutuek edo Batzar Orokorrak arautuko dute Zuzendaritza Kontseiluaren barne funtzionamendua, baina hiruhilean behin bildu beharko da gutxienez.

Kontseiluaren bilkuren deiak lehendakariak edo haren izenean dagoenak eginen ditu, bere ekimenek nahiz kontseiluko kideren batek eskatuta. Eskareri hamar eguneko epean kasu egiten ez bazaio, haren egileak egin dezake bilkurarako deia, baldin eta kideen erdiak gehi bat baldin badaude horren alde.

Zuzendaritza Kontseiluak hiru kide dituen kasuetan, kontseiluko bi kideren atxikimena izan beharko du gutxienez deia egin duenak.

Ez da beharrezkoa izanen bilkura deirik egitea kontseiluko kide guztiak bertan izanik bilkura egitea aho batez erabakitzen badute.

Bilkurara deitu ahal dira, halaber, baina boto eskubiderik gabe, kooperatibaren zuzendaria eta gainerako teknikariak, baita beste pertsona batzuk ere, sozietatearen aferetan interesa baldin badute.

**38. artikulua.** Lehendakaria eta idazkaria.

1. Zuzendaritza Kontseiluko lehendakaria kooperatibaren eta Batzar Orokorren burua da, eta entitatearen ordezkari eta estatutuetan zehazten diren ahalmenak ditu.

Lehendakariordea lehendakariaren ordeztaritu da haren eginkizunetan, postu hori hutsik nahiz hura agertu ez edo gaisorik dagoen guztietan.

2. Zuzendaritza Kontseiluko idazkariak, kooperatibakoa eta Batzar Orokorrekoa izanen baita, aktak prestatuko ditu erabakiak bertan zehaztuz, horien gaineko ziurtagiriak emanen ditu, betetzen direla begiratu du eta sozietate kooperatiboaren dokumentazioa gordetzeko erantzukizuna bere gain izanen du.

Idazkariak kargua uzten badu, ez bada agertzen edo gaixorik badago, kontseiluko kide gazteenak ordezkatu du.

**39. artikulua.** Zuzendaria.

1. Legeak egoki juzkatzen badu edo estatutuetan horrela eskatuz gero, Zuzendaritza Kontseiluak enpresa kooperatiboko zuzendari bat izendatu du, kontratuan jasoko diren eskubide eta betebeharrekin eta Zuzendaritza Kontseiluak berak erabakiko dituen eginkizunekin; izendapen horren berri batzarrari eman beharko dio.

2. Bigarren mailako edo maila handiagoko kooperatibetan zuzendarien edo kudeatzaileen kontseilua eratu ahal da, Zuzendaritza Kontseiluak eta estatutuek zehazten dituzten ahalmenekin. Zuzendarien edo kudeatzaileen kontseiluak ezin izanen ditu inolaz ere hartu bere gain beste organoen ahalmen eskuordezinak.

**40. artikulua.** Legelari aholkularia.

Azken hiru ekitaldi ekonomikoetako kontuen arabera urteko eragiketa-bolumena hiru milioi eurotik gorakoa duten kooperatibetan legelari aholkulari bat izendatu beharko dute, Zuzendaritza kontseiluak hartutako erabakiaren bidez.

**41. artikulua.** Kontu-hartzaileak.

1. Batzar Orokorrek bere bazkideen artean eta isilpeko bozketan izendatu du kontu-hartzailea, bat edo gehiago, beti kopuru bakoitian; horien agintealdiak urte batetik hiru urte bitarte iraunen du.

Agintealdi bakoitzean berretsi beharko da izendapena, denbora mugagaberako ere izendatu ahal dira.

2. Kontu-hartzaile lanetan aritzea eta Zuzendaritza Kontseiluko kide edo kooperatibako zuzenda-

ri izatea bateraezinak dira, eta ezin izanen da kontu-hartzaile izan aipatu kide eta kargu horiekin bigarren maila bitarteko odol- edo ezkontza-ahai-detasuna duena.

3. Kontu-hartzaileek idatzizko txosten bat aurkeztuko diote Batzar Orokorri, euren arteko adostasuna bada bakarra eta ez bada nork berea, ekitaldi ekonomiko bakoitza ixten denean. Txosten hori enpresaren kudeaketari buruzkoa izanen da, balantzearen azterketa eta emaitzen kontua barne, bai eta alor ekonomikoan Batzarrak ezagutu eta erabaki beharreko afera guztiak ere. Horretarako, Zuzendaritza Kontseiluak behar den informazioa eman beharko die kontu-hartzaileei Batzar Orokorra egin baino hogeita hamar egun lehenago gutxienez.

4. Kontu-hartzaileek, beren eginkizunetan, eskubidea dute informazioa jasotzeko eta kooperatibaren jardunaren gaineko edozein dokumentu, datu edo zehaztapen inolako trabarik gabe kontsultatu eta egiaztatzeko.

**42. artikulua.** Beste organoak.

Estatutuetan aurreikusirik badago, kooperatibek errekurtsio batzorde bat eratu dezakete, bazkideei edo atxikiei ezarritako zehapenen gaineko errekurtsioak ebazteko; esku hartuko du, halaber, estatutuek zehazten duten beste kasuetan.

Errekurtsio batzordearen erabakien aurka foru lege honen 36. artikuluan ezarritako prozeduraren bitartez jo daiteke.

**43. artikulua.** Ezgaitasunak eta bateraezintasunak.

1. Ondoko hauek ezin izanen dira Zuzendaritza Kontseiluko kide nahiz kontu-hartzaile izan:

a) Adingabeak.

b) Porrot egindakoak eta bergaitu gabeko konkurtsatuak, baita legez ezgaiturik daudenak ere.

2. Kontseiluko kide eta kontu-hartzaile kargua izatea eta honako hauek bateraezinak dira:

a) Filial ez diren sozietateetan karguak dituztenak, sozietatearen helburuarekin berdintasuna edo kidetasuna baldin badago.

b) Norberaren kontura nahiz besteren kontura, kooperatibaren jarduerarako lehiakizkoak edo antzekoak diren jardueretan aritzen direnak, non ez duen Batzar Orokorren aldeko erabakia, bertaratu direnen eta ordezkatu botoen bi herenek hartua.

c) Funtzionario publikoak, baldin eta haien ardurako eginkizunek kooperatibaren eginkizun berekiekin zerikusia baldin badute.

d) Kooperatibetako zuzendariak eta haien ahai-deak, bigarren maila bitarteko odol- edo ezkontza-ahaidetasuna dutenak.

#### **44. artikulua.** Erantzukizunak.

1. Zuzendaritza Kontseiluko kideek, zuzendariak eta kontu-hartzaileek, beren eginkizun berekiz gain, lanbide-sekretua gorde beharko dute, eginkizunetatik gelditu ondotik ere.

2. Zuzendaritza Kontseiluko kideek erantzun beharko dute solidarioki sozietatearen eta haren kideen aurrean malezia, ahalmeneen gehiegikeria eta arduragabekeria larria dela medio sortutako kalteengatik, salbu eta kaltea sortu duten erabakietan beren botoa espresuki gorde dutenen kasuan.

Zuzendaritza Kontseiluko kideen, kontu-hartzaileen eta zuzendariaren aurkako erantzukizun ekintza edozein momentutan erabil dezake Batzar Orokorrak edo, bestela, bazkideen ehuneko 10ek. Ekintza bost urteko epearen buruan preskribituko da, erabili zitekeen unetik hasita.

3. Urteko kontuei buruzko kanpoko auditoria egin beharko da Kontu Auditoretzari buruzko Legeak zehazten duen egoeran daudelarik edo kooperatibako bazkideen ehuneko 15ek idatziz hala eskatzen badiote Zuzendaritza Kontseiluari.

Idatz-zati honetan xedatutakoa betetzearen ondorioetarako, kanpoko auditoria izanen da foru lege honetako 83.2 artikuluan eta kooperatiben zerga-araubidea arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legeko 9.16 artikuluan aipatzen dena.

## **VI. KAPITULUA**

### **Araubide ekonomikoa**

#### **45. artikulua.** Sozietatearen kapitala.

1. Sozietatearen kapitala aldakorra izanen da eta bazkideen eta, daudenean, atxikien eta bazkide laguntzaileen derrigorrezko eta borondatezko ekarpenek osatuko dute. Ekarpene horiek ziurtatzeko titulu izendunak, kartillak, fitxak edo bazkideen izen-zerrenda erabiliko dira, ekarpen mota bakoitzak berea, baina inolaz ere ez dute izanen baloretituluen izaera.

2. Bazkide bakoitzaren ekarpenak, gehienez ere, sozietatearen kapitalaren ehuneko 25ekoak izanen dira, salbu eta foru lege honen 65. artikuluan aurreikusitako kasuan edo hamar bazkide baino gutxiagoko lehen mailako kooperatibetan,

kasu horretan gehienekoa ehuneko 33 izanen baita. Ekarpene horiek eskudirutan egin daitezke, espeziatan, eta ondasun eta eskubideetan, azken horietan Zuzendaritza Kontseiluak baloratuta.

3. Estatutuetan zehaztuko da bazkide izateko behar den derrigorrezko ekarpen gutxienekoa, denentzat berdina izan daitekeena edo kooperatibaren zerbitzuak erabiltzean bazkide bakoitzak bere gain hartutako konpromisoaren araberrakoa.

Derrigorrezko ekarpenen ehuneko 25 ordaindu beharko da gutxienez izenpetzen diren unean berean, eta gainerakoa estatutuetan ezarritako epean edo itundutakoan, baina gehienez ere lau urtekoan. Borondatezkoak oso-osorik ordaindu beharko dira izenpetzen diren unean.

4. Batzar Orokorrak, bertan direnen eta ordezkaturakoen botoen bi herenen gehiengoarekin, derrigorrezko ekarpen gehiago eskatzea erabaki dezake, eta horretarako haien zenbatekoa, epea eta baldintzak zehaztuko ditu. Ekarpene horiek kontentsatu daitezke bazkideek lehendik ordaindurik dituzten borondatezko ekarpenekin.

5. Estatutuetan zehaztuko dira aurreko idatz-zatietan aipatzen diren ekarpen horien ordainketan berankorra izateak ekar ditzakeen ondorioak.

6. Bazkide berriek sozietatearen kapitalean eginen dituzten derrigorrezko ekarpenak ez dira izanen bazkideek eginikoak baino haundiagoak, gaurkotzeak barne, estatutuetan xedatzen denaren arabera.

7. Batzar Orokorrak erabaki dezake borondatezko ekarpenak onartzea, horretarako baldintzak emanaz.

8. Estatutuetan edo Batzar Orokorraren erabakietan aldizkako kuotak ezar daitezke, baina inolaz ere ez dira izanen sozietatearen kapitalaren parte; ez dira halaber ekitaldiko dirusarreratzat hartuko, eta borondatezko erreserba funtsean sartuko dira zuzenean.

Halaber, ez dira izanen sozietatearen kapitalaren parte kooperatibaren kudeaketarako emandako funtsak, produktuak edo lehengaiak, edo kooperatibaren zerbitzuak jasotzeko eginiko ordainketak, edo bazkideen borondatezko finantzaketa itundutako baldintzetan.

9. Kooperatibek obligazioak jaulkitzea erabaki dezakete Batzar Orokorrean, eta horien jaulkipen-araubidea legeria indardunari lotuko zaio, baina obligazio horiek ez dira sekula sozietateko partaidetza bihurtuko.

10. Batzar Orokorrak erabaki dezake partaidetza bereziak onartzea, sozietatearen kapitalaren

parte ez direnak. Partaidetza horiek bazkideek nahiz hirugarrenek eginiko ondare-ekarpenak izanen dira, ordainketa egiten ez bada erabakia hartzen denetik gutxienez bost urte iragan arte.

Ekarpen horien ordezkapena titulu izendunen bitartez edo kontuko idaztoharren bidez eginen da, eta balore higigarritzat har daitezke jaulkipen-erabakian hala aurreikusten bada; horrelakoetan, haien araubide juridikoa finantza-aktibo horiei buruzko arauteria indardunari lotuko zaio.

Nolanahi ere, partaidetza bereziek ez dute inolako lehentasunik izanen beste kreditu batzuekin batera suertatuz gero, eta horien lehentasunari dagokionez gainerako hartzekodun arrunten atzetik joanen dira.

Ekarpen berezi horien mugaeguna entitatearen likidazioa onetsi baino lehenago gertatzen ez bada, likidatzaileek, behin entitatea desegin ondoren, sozietatearen kapitalaren parte gisa kontabilizatu ditzakete ekarpenok, banaketan sartzeko, gainerako hartzekodunek ez badute onartzen lehenago ordaintzea.

11. Halaber, Batzar Orokorrak erabaki dezake partaidetza-titulua jaulkitzea, sozietatearen kapitalaren parte izan gabe, eta horiek berekin ekarriko dute dagokion ordainketa mistoa, alegia, korritu finkoa gehi zati aldakor bat, kooperatibak, bere emaitzen arabera, jaulkipena gauzatzan den unean erabakiko duena.

Batzar Orokorrak horri buruz hartzen duen erabakian finkatuko da amortizazio epea eta aplikatzeak diren gainerako arauak, baita partaidetzen titularrek Batzar Orokorraren bilkuretara agertzeko eskubidea duten ere, hitzarekin baina botorik gabe.

Halaber, Batzar Orokorrak erabaki dezake partaidetzazko kontuak kontratatzea, Merkataritza Kodean ezarritakoari lotutako araubidean.

12. Kooperatibek harturiko kapital-dirulaguntzak ondareari gehitu ahal zaizkio zuzenean, erreserba berezien artean, dirulaguntzen erreserbak izenarekin, edo ustiapen kontuari, kontabilitateko araei jarraikiz.

Bigarren kasuan, erabilera libreko soberakinak dirulaguntzen derigorrezko erreserba funtsean sartuko dira, ekitaldiko emaitzen kontuari egotzitako dirulaguntza-kapitalaren zenbatekoa izanik gehienekoa.

Dirulaguntzen derrigorrezko erreserba funtsa banaezina izanen da, ekitaldiko galerak konpentsatzeko baizik ez da erabiliko, eta sortu zenetik

hamar urte iraganik berriz sartu ahal da erabilera libreko erreserbetan.

Bigarren mailako kooperatibek kapital dirulaguntzak ustiapen kontuari gehitzeko, kontabilitateko irizpideetan oinarrituko dira, eta sortutako soberakinak dirulaguntzen erreserba funtserako erabili ahal dira, betiere Batzar Orokorrak emaitzak banatzean hala erabakitzen badu.

**46. artikulua.** Sozietatearen kapitalaren araubidea.

1. Sozietatearen kapitalari eginiko ekarpenek korrituak sortuko dituzte estatutuek edo, horien ezean, Batzar Orokorrak aurreikusten badute.

Ez dira inolaz ere izanen diruaren legeko korrituak baino sei puntu altuagoak.

Nolanahi ere, Zuzendaritza Kontseiluaren erabakiz bertan behera geldituko da korrituen ordainketa kooperatiba galera egoeran dagoenean, Batzar Orokorrak hurrengo bilkura egin arte.

2. Kapitalari eginiko ekarpenak ibilgetua gaurkotuz gaurkotu ahal dira, horiei buruzko araudiari jarraikiz.

Nekazaritzako kooperatibetan gaurkotze funtsak erreserba funts berezi batera joanen dira.

3. Bazkideek sozietatearen kapitalari eginiko ekarpenak gaurkotu ahal dira kooperatibak sortutako soberakinetan jatorria duten erreserben kargura, betiere ondoko arauak betetzen badira:

a) Horretarako ez da inolaz ere erabiliko aipatutako erreserben ehuneko 50 baino gehiago.

b) Gaurkotzea egiteko, urte bakoitzeko ekarpenei ondorio fiskaletarako indarra duen legeko gaurkotze koefizientea aplikatu zaie.

c) Aurrekoa egin ahal izanen da soilik baldin eta erreserben kopurua, horien ehuneko 50 aplikatuta, aipatutako erregela aplikatu ondoren ekarpenek izandako igoera osoa estaltzeko adinakoa baldin bada.

4. Estatutuetan arautuko da bazkide baten baja gertatzen denean, zein den ere horren arrazoia, kapitalari eginiko ekarpenen itzulketa izateko eskubidea, ondoko arau hauei jarraikiz:

a) Beti kenduko dira, inolako mugarik gabe, ekitaldi ekonomikoan izandako galerak eta metatutakoak, baldin badaude, bai eta foru lege honen 23.3 artikuluan arautzen diren kapitalizatu gabeko zenbatekoak ere.

b) Kanporatze kasuetan eta arrazoitu gabeko bajak gertatzen direnean, derrigorrezko ekarpenen ehuneko 30 eta ehuneko 20rainoko kenkariak,

hurrenez hurren, ezar daitezke, baina borondatezko ekarpenetan ez da inolako kenkaririk egiterik izanen.

c) Itzulketarako epea gehienez ere bost urtekoa izanen da edo batekoa, heriotza gertatuz gero, eta bazkideek edo haien eskubidedunek itzuli gabeko diru kopuruari dagokion diruaren legezko korrituak ere hartzeko eskubidea izanen dute.

#### **47. artikulua.** Baliabide berekiak.

1. Kooperatibaren baliabide berekitzat joko dira artikuluhonetan halakotzat jotzen direnak eta merkataritza eta kooperatiba legerian horri buruz espresuki aurreikusitakoak.

2. Baliabide bereki aldakortzat honakoak joko dira:

a) Foru lege honetako beste artikulubatzuetan arautzen den sozietatearen kapitala.

b) Likidaziora arte ezin eska daitekeen menpeko zor epegabea, baina hartzekodunen baimenik gabe ordaindu daitekeena, gutxienez bost urte igaro ondoren.

c) 30 urte edo gehiagoko epea duen menpeko finantzaketa, betiere, 10 urte gutxienez geratzen baldin badira kontabilizatze egunetik mugaeguna arte.

b) eta c) letren kasuan, beharrezko izanen da "baliabide bereki aldakorrak" esamoldea erabiltzea balantzean kontabilizatzeko.

3. Sozietatearen kapital finkotzat joko da kooperatiba hartzailearen likidaziora arte ezin eska daitekeen menpeko zor epegabea, edozein dela ere, hartzekodunen baimen espresu edo tazitorik gabe ordaindu ezin daitekeena.

4. "Bestelako baliabide berekitzat" hartuko da kooperatibaren likidaziora arte ezin eska daitekeen menpeko zor epegabea, edozein dela ere, aurreko idatz-zatietan aipatuz bestelakoa.

5. Artikuluhonetan xedatutakoaren ondorioetarako, "menpeko" ekarpenentzat joko dira hartzekodun arrunt guztien atzetik geratzen direnak, kredituen lehentasunen ondorioetarako.

6. Kooperatibek bereganatutako finantza-inbertsio iraunkorren ordainketa -finkoa, aldakorra zein partaidetzazkoa izan-, gastu kengarria izanen da etekin kopurua finkatzeko orduan.

#### **48. artikulua.** Ekarpenen eskualdaketa.

Sozietatearen kapitalerako ekarpenak honela eskualdatu daitezke:

a) "Inter vivos" egintzen bitartez, baina bazkideen artean bakarrik eta ondoko salbuespenak izanda, estatutuetan jaso beharko direnak aplikatuko badira:

a.1) Zuzendaritza Kontseiluak baimena eman dezake jardunean dauden bazkideen ahaideak, hirugarren maila bitarteko odol-ahaidetasunekoak, bazkide izan daitezen, hala eskatzen badute eta ez sarrera-kuota ezta sozietatearen kapitalari egin beharreko ekarpena eskatu gabe.

Hamabost eguneko epean, bazkideak bere baja eman behar du eta sozietatean dituen partaidetzen eskualdaketa osoa egin behar dio bazkide izan nahi duen ahaideari. Bestela, zuzendaritza organoak bazkide izateko prozedura orokorrari ekinen dio, sarrera-kuoten eta sozietatearen kapitalari egin beharreko ekarpenen araubideari dagokionez.

a.2) Bazkideen eta ahaideen arteko eskualdaketa partziala bakar-bakarrik egin daiteke lehen mailako odol- edo ezkontza-ahaidetasuna dutenen artean, eta kasu horretan biak izan daitezke bazkide eskualdaketa egin ondoren, betiere foru lege honen 45. artikuluan sozietatearen kapitallean bazkideek duten partaidetzarako ezarritako gutxienekoak errespetatzen badituzte.

b) "Mortis causa" egintzen bitartez, eskubidedunak bazkide baldin badira edo izaera hori eskuratzeko baldin badute heriotza gertatu eta gehienez ere sei hilabeteko epean.

Eskubidedunak entitate kooperatiboko bazkide ez direnean, kooperatibak baimena eman dezake haietako bat bazkide gisa aritu dadin gainerako jaraunleen orde, jaraunleek aurretiaz baimena emanda.

#### **49. artikulua.** Ekitaldi ekonomikoa.

1. Estatutuetan ekitaldi ekonomikoa ixteko eguna finkatu beharko da. Besterik ezarri ezean, ekitaldi ekonomikoa abenduaren 31n itxiko da.

2. Ekitaldi ekonomikoa itxi eta lau hilabeteko epean, beranduenez, Zuzendaritza Kontseiluak agiri hauek prestatu beharko ditu:

a) Inbentarioa.

b) Balantzea.

c) Irabazien eta galeren kontua.

d) Azalpen txostena.

e) Soberakin garbiak banatzeko proposamena eta kooperatibaz kanpoko etekinak nora bideratuko diren, edo galerak nori egotziko zaizkion.

Balantzea, galeren eta irabazien kontua eta txostena argi eta garbi idatzi beharko dira halako moldez non haren irakurketatik ezagutza osoa aterako den, bai kooperatibaren ondareari, ekonomia-ri eta finantzen egoerari buruz, bai ekitaldiko emaitzei buruz, baita haren enpresa jardueraren gorabeherari buruz ere.

3. Balantzearen kontusailak kontabilitatearen ohiko printzipioei eta irizpide objektiboei jarraikiz baloratuko dira, hirugarrenen interesak bermatzeko eta kooperatibaren kudeaketa ekonomikoa taxuzkoa eta zuhurra lortzeko.

4. Estatutuetan ezarri ahal da auditoreek kooperatibaren egoera finantzarioak aldian behin aztertu beharra.

**50. artikulua.** Ekitaldi ekonomikoaren emaitzak finkatzea.

Ekitaldi ekonomikoaren emaitzak finkatzeko, honako arau hauek bete beharko dira:

1. Ekitaldiaren soberakin garbia, edo hala balitz, galerak finkatu ahal izateko honakoak izanen dira, besteak beste, gastutzat hartuko direnak:

a) Kooperatibaren funtzionamendurako behar diren gastuak.

b) Bazkideek edo atxikitakoek sozietatearen kapitalari eginiko ekarpenek sortutako korrituak, baita obligazio-hartzaileei eta gainerako hartzeko dunei zor zaizkien korrituak ere.

c) Amortizaziorako diren zenbatekoak.

d) Kooperatibaren kudeaketarako eta garapenerako bazkideek utzitako ondasunen zenbatekoa, merkatuko prezioen arabera baloratuak, baita laneko aurrerakinak ere, baina horiek ez dira izanen sektore hartako inguruko lantokietan dauden batez besteko soldatak baino altuagoak.

Nekazaritzako kooperatiben kasuan likidazioaren benetako balioa hartuko da bazkideek ekarritako ondasunen balioztat, betiere lortutako salneurri kooperatiba kudeatzeko beharrezkoak diren zuzeneko eta zeharkako gastuak kendu ondoren gelditzen dena baino handiagoa ez bada.

2. Honako etekin hauek kooperatibaz kanpoko etekin gisa idatzi beharko dira kontabilitatean: hirugarrenekin eginiko eragiketen ondoriozkoak, gainbalioetatik sortutakoak eta kooperatibaren helburukoak ez diren iturrietatik heldu direnak, salbuespen hauek eginda:

a) Sozietate kooperatiboetan egindako inbertsioetatik edo partaidetza finantzarioetatik datozen diru-sarreraren ondoriozkoak, edo, sozietate kooperatiboak ez badira ere, kooperatibaren lanerako

prestaketa lanak, lan osagarriak edo menpekoak egiten badituzte, horrelakoak ondorio guztietarako kooperatibaren emaitzat hartzen baitira.

b) Sozietatearen helburua betetzeko diren ibilgetu materialaren elementuak besterentzetik lortutako gainbalioak, baldintza hauek betez gero:

b.1) Diru guztia ibilgetuaren elementu gehiago erosteko inbertitzea, helburu bererako.

b.2) Berrinbertsio hori egitea ondare-elementua eman edo eskura jartzen den eguna baino urte bat lehenagotik hasi eta egun horren ondotik hiru urte bete baino lehen.

b.3) Ondareari amortizazio-epea bukatu arte eustea, justifikatzen diren galerak izan ezik.

Kooperatibaz kanpoko emaitzak kalkulatzeko, eragiketa horietatik etorritako diru-sarrerari, sarrera horiek lortzeko behar izan diren gastu berariazkoen gainera, kooperatibaren gastu orokorre dagokien zati bat ere egotziko zaie, egozpena egiteko taxuzko irizpideetan oinarrituz kalkulatuak.

3. Nekazaritzako kooperatibetan, urteko egoera finantzarioak egiteko, kanpaina bakoitzeko sarreren eta gastuen arteko korrelazio-araua aplikatuko da, baina denbora egozpenaren irizpide hau erabiliz: bazkideei igorri beharreko azkeneko likidazioaren datuak ezagutzen diren unean sartuko dira kanpaina bakoitzeko sarrera eta gastuak emaitzen kontuan.

**51. artikulua.** Derrigorrezko funtsak.

1. Kooperatiba guztietan derrigorrezko erreserba funtsa eta hezkuntza eta sustapen funtsa eratuko dira.

2. Derrigorrezko erreserba funtsa ezin daiteke bazkideen artean banatu eta honelaxe eratuko da:

a) Ekitaldi bakoitzeko soberakin garbiei buruz estatutuetan ezartzen den ehuneko, inoiz ez ehuneko 30etik beherakoa, funts hori sozietatearen kapitalaren ehuneko 50 adinakoa edo handiagoa izan arte. Zenbateko horretara iristen denean, soberakinen ehuneko 5 gutxienez hezkuntza eta sustapen funtsera joanen da eta gainerako ehuneko 25a derrigorrezko erreserba funtsera.

Aipatu erreserba funtsa sozietatearen kapitalaren ehuneko 200era iristen bada edo ehuneko hori gainditzen badu, soberakin garbien ehuneko 20 hura hornitzeko erabiliko da eta ehuneko 5 hezkuntza eta sustapen funtsa sartzeko.

Derrigorrezko erreserba funtsa sozietatearen kapitalaren ehuneko 300era iristen bada edo ehuneko hori gainditzen badu, aski izanen da soberakin garbien ehuneko 10 uztea hura hornitzeko eta



ehuneko 10 hezkuntza eta sustapen funtsa hornitzeko.

Bigarren mailako kooperatibetan kopuru hauek bideratuko dira: zergak ordaindu ondoren ateratzen den emaitzaren ehuneko 20 derrigorrezko erreserba funtserako eta ehuneko 10 hezkuntza eta sustapen funtserako.

b) Kooperatibaz kanpoko etekinen ehuneko 50. Gainerako ehuneko 50a borondatezko erreserbetarako izanen da.

Derrigorrezko erreserba funtsa sozietatearen kapitalaren ehuneko 300era iristen bada edo ehuneko hori gainditzen badu, kooperatibaz kanpoko etekinen ehuneko 25 funts horretarako izanen da, eta gainerako ehuneko 75a borondatezko erreserbetarako.

c) Derrigorrezko ekarpenen kenkariak, bazkidearen baja gertatzen denean.

d) Bazkideei ezarritako zehapen ekonomikoak.

e) Bazkideen sarrera kuotak, horrelakorik ezarri baldin bada.

f) Kooperatibak birmoldatu, integratu eta berriz abiarazteko prozesuetan dauden kooperatiben kasuan, birmoldatze prozesuko gastu guztiak derrigorrezko erreserba funtsera bideratu ahalko dituzte zuzenean.

Derrigorrezko erreserba funtsera, orobat, finantziario espezifikorako adostutako sariak bideratu ahalko dira eta, baita ere, integrazio prozesuak eta jarduera eta inbertsio berriak finantzatzeko sortutako funtsak, are funts horien errealizazioa ere, ordainketa sistema hori aukeratu bada.

Nolanahi ere, Batzar Orokorrak, Zuzendaritza Kontseiluak proposaturik, erabaki dezake c), d), eta e) letretan agindutako zenbatekoak derrigorrezko erreserba funtsean ez sartzeko eta foru lege honen hurrengo artikuluan arautzen den borondatezko erreserba funtsera bideratzea.

3. Hezkuntza eta sustapen funtsa banaezina eta bahiezina da eta honelaxe eratua dago:

a) Ekitaldi bakoitzeko soberakin garbieraren portzentaje jakin bat, estatutuek edo Batzar Orokorrak ezarriko dutena, baina ezin izanen da izan inolaz ere ehuneko 5 baino txikiagoa derrigorrezko erreserba funtsa sozietatearen kapitalaren ehuneko 50 adinakoa edo handiagoa denean.

b) Helburu horretarako jasotzen diren dirulaguntzak, dohaintzak eta laguntzak.

Batzar Orokorrak hezkuntza eta sustapen funtsa aplikatzeko oinarritzko jarraibideak ezarriko

ditu. Funtsa ondoko helburuak dituzten jardueretan erabiliko da:

b.1) Laguntza teknikoa sustatzea, kooperatibei laguntzeko goi egiturak sortzea eta, oro har, elkarlaguntzarako jarduerak burutzea.

b.2) Kooperatiben oinarri eta tekniketan bertako bazkide langileak eta besteren konturako langileak prestatzea eta hezteak, bai eta kooperatibismoaren ezaugarriak aditzera ematea kooperatibaren jarduerak ukitutako gizarteari.

b.3) Izaera kulturala, profesionala edo ongintzakoak duten jarduerak, inguruko gizartea edo, oro har, komunitatea sustatzeko asmoz.

Funts hori bere helburuetara bideratzeko, bigarren mailako edo maila handiagoko kooperatibak, kooperatiben elkarteak edo irabazi asmorik ez duten ekonomia sozialeko entitateak erabili ahalko dira.

**52. artikulua.** Soberakin garbi erabilgarrien aplikazioa.

1. Derrigorrezko funtsak hornitu ondoren, soberakin erabilgarriak kooperatibaren itzulkinetarako aplika daitezke eta, hala balitz, kooperatibako soldatapeko langileek emaitzetan parte-hartzea izateko, baita borondatezko erreserba funtsa eratzeko ere, ekitaldi bakoitzean Batzar Orokorrak erabakitzen duenaren arabera, zeinak zehaztuko baitu banagarri edo banaezin diren, entitatearen estatutuen arauetan idatzia ez badago.

Borondatezko erreserba funtsa, halakorik badago, ondoko diru-zenbateko hauekin hornituko da:

a) Kooperatibaz kanpoko etekinen ehuneko 50.

b) Kooperatiben etekinetatik portzentaje bat, Batzar Orokorrak erabakitzen duena.

c) Baja kasuetan egin beharreko derrigorrezko ekarpenen kenkariak, ezarritako zehapen ekonomikoak eta bazkidearen sarrera kuotak, Batzar Orokorrak horrela erabakitzen duenean, aurreko artikuluko 2. idatz-zatiko azkeneko leerroaldean xedatutakoari jarraikiz.

2. Unean uneko edo aurrera begirako behar ekonomiko eta finantzarioak direla-eta, estatutuek edo Batzar Orokorrak itzulkina honela aplikatzea erabaki dezakete:

a) Sozietatearen kapitalean sartzeko, bazkide bakoitzaren ekarpen gisa.

b) Funts bat eratzeko, Batzar Orokorrak administratua eta bazkidearentzat erabilera mugatua izanen duena, betiere haren itzulketa eta korritu-

tasa mugatu bat bermatuz, diruaren legezko korritua baino txikiagoa, gehienez ere zortzi urteko eperako, bigarren mailako kooperatibetan izan ezik, horrelakoetan epea luzeagoa izan baitaiteke.

3. Kooperatibaren itzulkina, ekitaldi bakoitza onetsi ondoren banatuko dena, kooperatiban bazkide bakoitzak eginiko eragiketa, zerbitzu edo jardueren arabera izanen da.

Kooperatibaren itzulkina ez da inolaz ere sorraziko sozietatearen kapitalaren partaidetzaren arabera.

4. Dirulaguntzen erreserba funtsa, foru lege honen 45.12 artikuluan aurreikusten dena, eta erabilera libreko erreserbak bazkideen artean banatzeko orduan, bazkide bakoitzak kooperatiban egindako eragiketa, zerbitzu eta jarduerak aintzat hartuko dira. Banaketa egiteko bazkide bakoitzari aintzat hartuko zaion jardunaldia erreserba horiek biltzeko igaro dena adinakoa izanen da, hamar urtekoa gehienez. Erreserba horien banaketa, ondorio guztietarako, kooperatibaren itzulkintzat hartuko da.

#### **53. artikulua.** Galeren egozketa.

1. Ekitaldi bakoitza ixtean sortu ahal diren galeren egozketa eta konpentsazioa egiteko irizpideak estatutuetan finkatuko dira.

Kompentsazioa egin daiteke bai erreserben kargura, bai bazkide bakoitzak eginiko eragiketa, zerbitzu edo jardueren arabera, edo bi bideak konbinatuz, baina inola ere ez bazkide bakoitzak sozietatearen kapitalari eginiko ekarpenen arabera.

2. Bazkideek onartu baina konpentsatzen ez diren galerak kooperatibaren aldeko kreditutzat hartuko dira eta kreditu hori erabili ahalko da bazkideak kooperatiban borondatezko edo derrigorrezko baja hartu badu ere.

### **VII. KAPITULUA** **Liburuak eta kontabilitatea**

#### **54. artikulua.** Kooperatiben dokumentazioa.

1. Kooperatibek ondoko liburuak eramanen dituzte, behar bezala ordenatuak eta eguneratuak:

a) Bazkideen erregistro liburua eta, hala balitz, atxikitakoena, haien nortasuna ongi zehaztuz.

b) Sozietatearen kapitalari eginiko ekarpenen erregistro liburua.

c) Batzar Orokorraren, Zuzendaritza Kontseiluen eta, hala balitz, errekurtsio batzordearen akta liburua.

d) Kontabilitate liburuak. Kontabilitateko egunkaria eta urteko inbentario eta kontuen liburua ezinbestekoak izanen dira eta merkataritzako legeriak horietarako finkatzen duen edukia izan beharko dute.

e) Kontu-hartzaileen txosten liburua.

2. Liburuak erabiltzen hasi aurretik, Nafarroako Kooperatiben Erregistroak eginbidetu beharko ditu.

Hori egitea deusetan galarazi gabe, prozedura egokien bidez paperetan egiten diren idatzohar eta idazpenak onartuko dira, gero batean, zenbakitu eta koadernatu ondoren, erregistro liburuak egiteko erabiltzen badira. Liburu horiek ekitaldi ekonomikoaren urteko kontuak onetsi eta bi hilabete igaro baino lehen eginbidetzera aurkeztu beharko dira.

### **VIII. KAPITULUA** **Estatutuen aldaketa, bat-egitea, zatiketa eta eraldaketa**

#### **55. artikulua.** Estatutuen aldaketa.

Estatutuak aldatzeko erabakiak Batzar Orokorrak hartuko ditu bertan izan edo ordezkatuak direnen botoen bi herenaren gehiengoarekin.

Halarik ere, sozietatearen helbidea udalerritik atera gabe aldatu nahi izanez gero, aski izanen da Zuzendaritza Kontseiluaren erabakia.

#### **56. artikulua.** Bat-egiteak eta xurgapenak.

1. Kooperatiben bat-egiteak egiteko edo kooperatiba batek jardunean dagoen beste bat edo gehiago xurgatzeko, beharrezkoa izanen da horietarako propio deitutako Batzar Orokorrak hori onestea bertaratzen diren bazkideen eta ordezkatuak direnen botoen hiru bostenen gehiengoarekin.

Bat-egite erabakia hartuta, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Foru Komunitatean gehien zabalitzen diren egunkarietatik bitan gutxienez argitaratu beharko da.

Bat-egite erabakia ezin izanen da gauzatu Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasita bi hilabete igarotzen diren arte.

2. Aipatu epearen barrenean hartzekodunen bat erabakiarekin ados ez badago, gauzatu baino lehen nahitaezko baldintza izanen da konforme ez dagoenaren eskubideak ordaindu eta bermatzea, eta azkeneko horrek ezin izanen dio muzin egin kobrantzari, mugaeguna beteta ez duten kredituak badira ere.

Desadostasuna agertu duena bazkidea edo atxikia bada, kooperatibatik atera ahalko da Zuzendaritza Kontseiluari igorri beharreko idatzi baten bitartez, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den egunetik hasita hogeita hamar egun naturaleko epean. Eskaera hori arrazoiuriko bajatzat hartuko da.

3. Bat egiten duten kooperatiba bakoitzaren ondarea bat-egitearen ondorioz sortuko den kooperatiba berriaren ondarrera pasatuko da, eta azkeneko horrek hartuko ditu bere gain aurrekoen eskubide eta betebeharrak guztiak.

Bat-egitearen ondorioz sortuko den kooperatibaren liburuetan agertu behar da batu diren kooperatibetatik heldu diren ondare elementu bakoitzaren kontzeptua eta jatorria.

Halaber, bateginak diren kooperatibetako bazkide eta atxikitakoak kooperatiba berriaren partaide izanen dira.

4. Kooperatibaren xurgapena gertatzen denean, prozedura eta ondorioak berberak izanen dira.

5. Bat-egitea, xurgapena, jarduera baterako ekarpena edo ondare ibilgetua eskualdatzen den beste figura antzekoren bat gertatzen denean, kooperatiba berriak edo xurgatzaileak kooperatiba xurgatuko bazkideekin hitzarmenak egin ahalko ditu, epe jakin batean gainbalioak salduz gero sor litezkeen gainbalioak onartzeko.

#### **57. artikulua.** Bat-egitearen eskritura.

Bat egiteko erabakia Nafarroako Kooperatiben Erregistroan inskribatu beharko da eskritura publiko aurkeztuz. Eskritura horretan bildu beharko dira, erabakiaz gain, kooperatibaren balantze orokorrak, bat egiteko erabakiaren eguna baino egun bat lehenago itxiak, bat-egitearen aurka agertu diren bazkide nahiz atxikitakoen zerrenda izenduna eta, hala balitz, erabakiaren aurka agertu diren hartzekodunei buruz dagoen egoera.

#### **58. artikulua.** Zatiketa.

Kooperatibaren zatiketa bat-egite kasurako aplikagarri diren arau berberen menean geldituko da, eta bazkideek, atxikitakoek eta hartzekodunek bat-egite kasuetarako foru lege honek aitortzen dituen eskubide berberak erabil ditzakete.

#### **59. artikulua.** Eraldaketa.

1. Kooperatibak edozein motatako sozietate zibil edo merkataritzakoa bilakatzeko eraldatu ahalko dira. Eraldatzeko erabakia Batzar Orokorra hartuko du, foru lege honetan bat-egite eta xurgapen kasuetarako ezarritako baldintza eta arau berberei jarraituz.

2. Izaera kooperatiboa ez duten sozietate eta elkarteak eraldatu eta foru lege honetan araututako kooperatiba motaren bat izatera igaro ahalko dira, hori egitea berariaz debekatzen duen legezkotik agindurik ez badago.

Eraldatzeko erabakia Batzar Orokorra hartuko du, edo bestela, sozietatearen nahia erakusteko erabiltzen den balio bereko beste sistemaren bat erabiliko da, baina betiere aplikatzeko den legediak ezartzen duen gehiengoa lortu beharko da.

Eraldaketa eskritura publikoari diruzkoa ez den sozietatearen ondarearen gainean aditu independente batzuek egin beharreko txostena erantsiko zaio, hala badagokio, eta hori guztia Merkataritzako Erregistroan eta behar diren gainerako erregistroetan aurkeztuko da, eta betiere Nafarroako Kooperatiben Erregistroan, eraldaketa egiteko erabakia hartu den egunaren bezperan itxizko balantzearekin batera.

Kooperatiba bilakaturik ere, ez da deus ere aldatuko entitate eraldatuko bazkideek erabaki hori hartu aurretik sozietatearen aurrean ziztuzten zorrerikiko erantzukizunaren araubidea.

3. Sozietate kooperatibo batek beste entitate mota bat izateko eraldaketa egiten duenean, derri-gorrezko erreserba funtseko saldoek, hezkuntza funtsekoek eta, estatutuen arabera, bazkideen artean banatu ezin diren funts edo erreserbetako saldoek kooperatibak likidatzen direnerako 63.2.e) artikuluan finkatu den helburu berbera izanen dute.

## **IX. KAPITULUA**

### **Desegitea, deskalifikazioa eta likidazioa**

#### **60. artikulua.** Desegitea.

Sozietate kooperatiboak arrazoi hauetako bat gertatzen denean deseginen dira:

a) Estatutuetan zehaztutako bukaera egunera iristean, Batzar Orokorra hura luzatzeko erabakia hartzen ez badu, bertaratzen diren bazkideen eta ordezkari botoen bi herenek onetsirik.

b) Bazkideen kopurua edo sozietatearen kapitala murriztu eta legean nahiz estatutuetan ezarritako gutxienezko iristen ez denean, eta sei hilabeteko epean berriz behar adina handitzen ez bada.

c) Bat-egitea edo erabateko zatiketa gertatzen denean.

d) Kooperatibaren porrota gertatzen denean.

e) Batzar Orokorraren erabakiaren bitartez, emandako baliozko botoen bi herenaren gehien-goarekin.

**61. artikulua.** Desegiteko prozedura.

Arestiko artikuluan aipatutako desegite-arrazoirien bat gertatuz gero, Batzar Orokorra biltzeko deia eginen da foru lege honetan ezartzen diren prozeduren bitartez, desegiteko erabakia har dezan.

Deialdiaren egunetik Batzar Orokorra egiten den arte ezin izanen dira igaro hogeita hamar egun natural baino gehiago, ez eta hamar baino gutxiago ere.

Desegiteko erabakia hartuta, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Foru Komunitatean gehien zabaltzen diren egunkarietatik bitan gutxienez argitaratu beharko da.

Horrez gainera, erabakia hartu eta hogeita hamar eguneko epean Nafarroako Kooperatiben Erregistroari jakinaraziko zaio, haren inskripzioa egin dezan.

**62. artikulua.** Deskalifikazioa.

1. Deskalifikazioa, sozietate kooperatiboaren desegitea berarekin dakarrena, ondoko arrazoiengatik gertatuko da:

a) Foru lege honen 60.b) artikuluan ezarritako kasuan, Batzar Orokorrak sozietatea desegiteko erabakia ezarrita dagoen epean hartzen ez badu.

b) Foru lege honetan ezarritako arauak betetzen ez badira.

2. Deskalifikazioaren erabakia Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak hartuko du, behar den espediente tramitaturik. Espedientearen tramitazioaldian interesatuei entzutea emanen zaie eta Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Ikuskatzailearen eta Nafarroako Kooperatiben Kontseiluaren txostenak bilduko dira.

3. Deskalifikazioarekin batera, erregistroetako idazpenak baliorik gabe geldituko dira berehalakorian.

4. Deskalifikatzeko erabakia hartuta, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Foru Komunitatean gehien zabaltzen diren egunkarietatik bitan gutxienez argitaratu beharko da.

**63. artikulua.** Likidazioa.

1. Estatutuek, edo hala balitz Batzar Orokorrak, ezarriko dute sozietate kooperatiboaren likidazioan segitu beharreko prozedura, bai likidatzaileak izendatzeko (betiere kopuru bakoitia izanen da), bai sozietatearen ondasunak banatzeko.

2. Nolanahi ere, likidatzaileek jarduketa hauek egin beharko dituzte, hemen adierazten diren ordena berebean:

a) Kooperatibaren gizarte-zorrak kitatzea.

b) Hezkuntza eta sustapen funtsari dagokion saldoa erreserbatzea.

c) Sozietatearen kapitala bazkideen artean banatzea, betiere bazkide edo, hala balitz, atxikita-ko edo bazkide laguntzaile bakoitzaren parte-hartzearen arabera.

d) Borondatezko erreserba funtsarekin, eta hala balitz erreserba funts bereziarekin, arestiko puntuan esandakoaren arabera jokatzeko, betiere sozietatearen kapitalaren arabera.

e) Hezkuntza eta sustapen funtsa eta derrigorrezko erreserba funtsa ondoko prozeduraren arabera banatzea:

Kooperatiba zein motatakoa den, hari dagokion batasun elkartera bazkide guztien zerrenda eta dauden aktibo likidoak eramanen dira, eta diru horrekin funts bat eratuko da hantxe, urte baterako gehienez.

Epe horretan, desegin den kooperatibako bazkideek aukera izanen dute funts horretatik dagokien zatia beste sozietate kooperatibo bateko sarre- ra kuota gisa transferitzeko, desegin aurreko urtean kooperatiban egindako jardueraren arabera, kooperatiba hartzailearen lurralde eremuak bazkideen ustiapenak kokatzen diren eremua hartzen badu eta sozietatearen helburua antzekoa bada.

Batasun elkarte horrek eginiko eskaintza hartzen ez duten bazkideek dagokien zatia galduko dute, eta hori kooperatibismoaren sustapenerako erabiliko da eskura duen egituraren barrenean.

3. Deseginako sozietate kooperatiboak likidazioa egin arte izanen du nortasun juridikoa. Epe horretan sozietatearen izenari "likidazioan" hitza erantsi beharko zaio.

4. Likidazioa bukatutakoan, likidatzaileek azken balantzearen berri emanen diote Batzar Orokorrari.

5. Likidatzaileek, azken balantzearen onspena jasoko duen eskritura publiko baten bidez, kooperatibari dagozkion idazpenak deusezta ditzala eskatuko diote Nafarroako Kooperatiben Erregistroari, hamabost eguneko epean, eta horretarako sozietatearen trafikoari buruzko liburuak eta agiriak emanen dizkiote, bost urtez gordeko direnak.

## II. TITULUA Kooperatiba motak

### I. KAPITULUA Lehen mailako kooperatibak

#### 64. artikulua. Nekazaritzako kooperatibak.

1. Nekazaritzako kooperatibak nekazaritzako, oihangintzako edo abeltzaintzako ustiapen baten titulartasun osoa edo hainbanatua duten pertsona fisikoek nahiz juridikoek osatzen dituztenak dira, baldin eta haien helburua, azpimotaren arabera, ondoko hauetako bat baldin bada:

a) Landalurren kooperatibak.

a.1) Bazkideei lehengaiak, ondasunak edo zerbitzuak ematea.

a.2) Nekazaritzako gaiak eta haien deribatuak eraldatu, industrializatu eta merkaturatzea.

a.3) Nekazaritzako kreditu eta aseguruak sustatzea eta haien kudeaketa eramatea.

a.4) Nekazariei eta nekazaritzako herriei lagundu eta horien egoera hobetzea helburua duten jarduerak sustatzea eta haiei zerbitzuak eskaintzea.

a.5) Bazkideek erabiltzeko izanzen diren makina eta lanabesak erostea, ereintza, egokitze eta uzta lanak egitea bazkideei, hala nola, laborantzako beste zerbitzu zail batzuk eskaintzea, produkzio kostuak merkatu eta lanak errazteko asmoz.

a.6) Lurrak,azienda, basoak edo antzeko beste ondasun batzuk erostea edo errentan hartzea, zuzenean ustiatzeko edo beste nekazari edo abeltzain batzuei lagatzeko.

a.7) Nekazaritzakoa nahiz abeltzaintzakoa den beste edozein lan eta horiekin zuzeneko harremana duten guztiak.

b) Nekazaritzako makineria erabiltzeko kooperatibak (NMEK).

Nekazaritzako makina edo ekipo bat edo gehiago batera erosi eta erabiltzea, helburu hori beste edozeinekin elkartezina izanik.

c) Lurra elkarrekin ustiatzeko kooperatibak.

c.1) Lurrak,azienda, basoak edo horrelatsuko ondasunak elkarrekin erosi edo errentan hartzea. Horretarako nekazaritzako enpresa bakarra osatu eta kudeatu beharko dute.

c.2) Nekazaritzakoa nahiz abeltzaintzakoa den beste edozein lan eta horiekin zuzeneko harremana duten guztiak.

Artikulu honetako a) eta c) idatz-zatietan aipatutako nekazaritzako kooperatibek bestelako lan

mota batzuk egin ahalko dituzte, betiere horiek kooperatibak guztira egiten dituen lan guztien %20 baino gehiago ez badira.

2. Nekazaritzako kooperatiben estatutuetan, foru lege honek oro har eskatzen duenaz gain, ondoko alderdi hauek zehaztu beharko dira:

a) Bazkideek zerbitzu, jarduera eta nekazaritzako tresna eta ekipo guztiak, baita haren zerbitzu teknikoak ere, erabiltzeko duten betebeharra. Horretarako, estatutuen arauetan betebeharrak zehaztuko dira, partaidetza moduluak finkatuz denbora-unitateen, azaleraren eta pisuaren arabera.

b) Lurra batera ustiatzeko kooperatiben estatutuek bazkideen partaidetza moduluak ere zehaztuko dituzte, batetik, lurra edo bestelako ondasunak erabiltzeko eta aprobetxatzeko eskubidea jartzen duten bazkideei dagokiena eta, bestetik, lana ere, edo lana besterik ez, jartzen dutenei dagokiena, hau da, lan-bazkideena.

c) Bigarren mailako helburu gisa, bazkideek erabiltzeko eta kontsumitzeko izanzen liratekeen ondasunak edo zerbitzuak eskaintzeko aukera jasoko da.

d) Gastuen derramak, horrelakorik ezartzen denean.

e) Bazkideak kooperatibarekin egiten dituen eragiketetan derrigorrezko erreserba funtsa bideratzeko aplikatu beharko den gutxienezko portzentajea, hori guztia ezertan ukatu gabe foru lege honen 51. artikuluan ezarritakoa.

f) Kooperatibak bigarren mailako kooperatibekin eragiketak egiten baditu, ezartzen den portzentajea bien artean hainbanatuko da.

g) Zerbitzu bereziak emateko batzordeak edo taldeak sortzeko prozedura.

h) Bazkidearen nekazaritzako ustiatzeagari lotuak dauden ahaideek kooperatiban nola har dezaketenen parte, hori egitea egoki iruditzen denean.

i) Kooperatibaren etorkizun ekonomikoa babes-teko behar diren neurriak, bazkide baten bajak kooperatibaren ondarearen egoeran porrota eragin bidezake, haren bideragarritasun ekonomikoa eta finantzarioa kolokan jartzen direlako.

j) Barne erregelamendu bat egitea, bazkideen botoen ponderazioa arautuko duena, hori guztia artikulu honetan berean arautzen denari jarraikiz.

3. Nekazaritzako makineria erabiltzeko azpikategoriako kooperatiben estatutu arauetan, aurreko idatz-zatian azaldutakoez gain, ondoko inguruabarrak ere jaso beharko dira nahitaez:

a) Bazkideek kooperatibako bazkide gisa epe zehatz batean gelditzeko duten betebeharra, gutxienez kooperatibako makineriaren amortizazio epea bukatu arte eta gehienez hamar urtez, salbu estatutuetan aurreikusita dauden baja arrazoituen kasuetan.

b) Arestiko puntuan hartutako konpromisoa betetzen ez diren kasuetarako, Zuzendaritza Kontseiluak foru lege honen 45.4.b) artikuluan baitmentzen diren kenkarietan aplika dezakeen porzentajearen igoera (ehuneko 10 gehienez).

c) Baja hartzen duen bazkideak duen betebeharra, NMEKren makineria dela-eta ordura arte hartutako konpromisoari dagokien zatia ordaintzeko.

d) Bazkide bakoitzak sozietatearen kapitalari derrigorrezko ekarpenak egiteko aplikazio moduluak, bai NMEKn sartzen den unean berean bai etorkizunean eros daitekeen makineriari begira, hitzartutako partaidetzaren arabera.

e) Zerbitzu kooperatibizatuak egiteko makinak eta ekipoen erregistro liburua behar bezala eta egunez egun eramatea.

4. Lurra batera ustiatzeko azpikategoriako kooperatiben azpimoten estatutuetan, artikuluan honen 2. idatz-zatian aipatu diren derrigorrezko betebeharez gain, ondoko inguruabar hauek jaso behar dira nahitaez:

a) Lurrak edo bestelako produkziobideak erabili eta aprobetxatzeko eskubidea ekartzen duten bazkideek entitatean eman beharreko gutxienezko epea, gehienez ere hamabost urtekoa izan behar da.

b) Kooperatibaren itzulkinak bazkideei aitortzeko irizpideak, betiere jarduera edo zerbitzu kooperatibizatuari jarraikiz eta horretarako kontuan hartuz kooperatiba mota horretan bi bazkide mota izan daitezkeela.

5. Nekazaritzako sozietate kooperatiboetako estatutuetan bazkide bakoitzak Batzar Orokorrean botoa nola eman arautuko da, derrigorrez bete beharreko ondoko printzipioen arabera:

a) Bazkide bakoitzari boto bat gutxienez eta hamar gehienez emanen zaio. Ponderazioa ezin izan da hiru bototik beherakoa izan.

b) Botoak bazkideen artean nola banatuko diren erabakitzeko, jarduera edo zerbitzu kooperatibizatuaren arabera egiten da, eta inola ere ez sozietatearen kapitalari egindako ekarpena kontuan hartuta.

c) Batzar Orokorra egin baino lehenago denbora nahikoa eman, Zuzendaritza Kontseiluak zerrenda bat prestatuko du eta bertan zehaztuko bazkide bakoitzari zenbat boto dagokion sozietatean. Horretarako, jarduera edo zerbitzu kooperatibizatuaren datuak hartuko dira oinarri, azkeneko hiru ekitaldi ekonomikoetakoak.

Aipatu zerrenda kooperatibaren helbide sozialean izan da ikusgai, batzarra egin baino bost egun lehenagotik batzarra egiten den arte, konforme ez dagoen bazkide orok foru lege honen 36. artikuluan adierazitako bideak erabiliz haren aurka jo dezan.

d) Batzar Orokorra onetsiko duen barne araubideko erregelamendu baten bidez entitate bakoitzean boto sozialak eta jarduera kooperatibizatuaren artean dagoen erlazioa ezarriko da, boto-banaketa egiteko.

**65. artikulua.** Nekazaritzako kooperatiben araubide ekonomikoa.

1. Lehenengo, bigarren edo hurrengo maila bateko nekaritzako kooperatibek "errotazio-kapitala" izeneko sistema ezar dezakete, non bazkideek ekarpen gehiago egin behar dituzten sozietatearen kapitalean bakoitzaren jarduera kooperatibizatuaren arabera. Era berean, entitateak itzuli egiten ditu bere garaian eginiko ekarpenak, antzinasunaren arabera. Diru-sarrera edo itzulketa garbiak kapitalaren handitze edo gutxitzetza hartuko dira.

Errotazio-kapitalaren sistema erabili arren, sozietatearen kapitala ezin izan da inola ere foru lege honen 7. artikuluan ezarritako sozietatearen gutxienezko kapitalaren azpira joan.

Errotazio-kapitalaren sistema duten kooperatibetan bazkideen bajak gertatuz gero, itzulketa egiteko epea errotazio horretarako ezarritako berbera izan da. Bajaren arrazoiak heriotza izanez gero, itzulketa egiteko epe laburragoak ezar daitezke estatutuetan, deusetan galarazi gabe foru lege honen 46.4.c) artikuluan gainerako kooperatibentzat ezarritakoa.

Entitate bakoitzaren Batzar Orokorra barne araubideko erregelamendua onetsiko du, aipatutako errotazio-kapitalari aplikatuko zaion araubidea garatzeko.

2. Nekazaritzako kooperatibak behartuak daude beren kontabilitatean ondoko ondare funts hauek jasotzera:

a) Sozietatearen kapital gutxienezkoa eta derrigorrezko kapital finkoa, bazkideek eta, halakorik balitz, atxikiek eta bazkide laguntzaileek utzi behar dutena.

b) Sozietatearen kapital aldakor eta derrigorrezkoa eta sozietatearen kapital aldakor eta borondatezkoa, bazkideek eta, halakorik balitz, atxikiek eta bazkide laguntzaileek utzi behar dutena.

c) Derrigorrezko erreserba funtsak, bai kooperatiben emaitzekin sortutakoa bai kooperatibaz kanpoko emaitzekin eratutakoa, bai eta hezkuntza eta sustapen funtsa ere.

d) Erreserba funts berezi hauek: Aktiboak gaurkotzearen ondoriozko erreserba funts berezia, dirulaguntzen erreserba funts berezia eta Nekazaritzako Ekoizleen Batasunaren erreserba funts berezia.

e) Kooperatiben eta kooperatibaz kanpoko soberakinekin sortutako borondatezko erreserba funtsak eta estatutuetaoak, Batzar Orokorrak edo estatutuak arautzen dituzten borondatezko erreserba funtsak eta aldizkako kuotekin sortutako borondatezko erreserba funtsak.

Ez dira ondare funtstzat hartuko inolaz ere, Batzar Orokorrak edota estatutuak sortutakoak izanik, bazkideentzat aldi baterako galdagarriak direnak, izan ere pasibo galdagarritzat hartuko dira.

#### **66. artikulua.** Lan elkartuko kooperatibak.

1. Lan elkartuko kooperatibak dira pertsona fisikoek, nork bere lanaren bitartez, ondasun edo zerbitzuak ekoiztea helburu duen jarduera ekonomiko edo lanbidezko bat egiteko asmoz osatzen dituztenak, horrela enplegu egonkorra lortzen baitute.

Norberaren lanaren prestazioa kontratatzeko legezko gaitasuna dutenak izan daitezke horietako bazkide. Langilearen izaera galtzeak berekin dakar bazkidearen izaera ere galtzea.

2. Lan elkartuko sozietate kooperatibo batean denbora mugagabeko kontratuarekin aritzen diren besteren konturako langileek egin beharko dituzten legezko lanorduen kopurua hauxe izanen da gehienez: entitatearen bazkide langileek egiten dituzten lanordu guztien ehuneko hogeita hamar.

3. Bazkide izateko baldintza gisa, estatutuetan probaldi bat ezar daiteke, gehienez ere sei hilabetekoa izanen dena. Epe horretan estatutuetan aitortzen zaizkion eskubide eta betebeharrak izanen ditu bazkidegaiak.

Kontratu mugagabea duen langileak kooperatiban urte batetik gorako antzinatasuna baldin badu lan-bazkide gisa onartu beharko dute, probaldirik egin gabe, betiere gainerako baldintzak betetzen baldin baditu eta berak eskatzen badu.

4. Bazkideek lan aurrerakinak jaso ahalko dituzte, Batzar Orokorrak finkatzen dituztenak, eta horiek laneko soldatek dituzten berme berberak izanen dituzte.

5. Bazkide baten baja gertatuz gero, sozietatearen kapitalari eginiko ekarpenen itzulketa hartzeko gehieneko epea bost urtekoa izanen da.

Horrelakoetan, itzultzen ez diren ekarpenek gutxienez diruaren korritu legalak sortuko dituzte.

6. Lan elkartuko kooperatiben estatutuetan Zuzendaritza Kontseiluko postu batzuk erreserbatzea ezar daiteke, baita bazkide sail bakoitzak Batzar Orokorrean dagozkion bazkideak zuzenean hautatzeko duen eskubidea ere, gainerako kontseilukideen hautaketan parte hartu gabe.

Era berean, mota honetako kooperatibetan berrogeita hamar bazkide langiletik gora aritzen badira, estatutuetan Gizarte Kontseilu bat eratzea aurreikus daiteke, bazkide langileen ordezkaritza organo gisa, lan harremanen gaineko gai guztietan Zuzendaritza Kontseiluari aholku eta informazioa emateko.

7. Laneko antolaketa, lanaldia, asteko atsedenak, jaiak, oporrak eta baimenak, lanbide sailkapena, mugigarritasun funtzionala eta geografikoa, eszedentziak eta kooperatibaren araubideko lan harremanak eten edo iraungitzearekin, eta oro har, lan-bazkideen eskubide eta betebeharrekin zerikusia duten afera guztiak estatutuetan arautuko dira, edo bestela, Batzar Orokorrak hartutako erabakiaren bitartez, hori guztia haien lan araubidearen oinarritzko markoa ezartzearen.

8. Halaber, estatutuak, edo Batzar Orokorrak, bazkide langileen disziplina araubidearen oinarritzko markoa ezarriko dute.

9. Estatutuak nahitaez adierazi beharko da Araubide Orokorra aukeratu den edo Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bateginean araututako araubide berezietatik beste edozein, gero bazkide langileei haien jardueraren arabera aplikatzeko.

10. Laneko jurisdikzioa eskuduna izanen da lana dela kausa kooperatibaren eta bazkide langileen artean gertatzen diren auziez arduratzeko, baita bere eskumenekoak izanik auzi horiekin zuzeneko zerikusia duten gaiez ere.

11. Sozietate kooperatiboa den bazkide batek kapitalari egindako ekarpenak sozietatearen kapitalaren ehuneko 25etik gorakoak izan daitezke, kooperatibak duen bazkide kopurua gorabehera, baina inolaz ere kapital horren ehuneko 50 edo gehiago.

12. Kooperatibak diren bazkide laguntzaileen botoen batura kasuan kasuko organoan dauden sozietatearen boto guztien bosten batetik gorakoa izan daiteke, baina ezin izanen dituzte inolaz ere eskuratu boto guztien erdiak edo gehiago.

13. Estatutuetan, kooperatibak diren bazkide-entzako boto pluralaren sistema ezar daiteke, jarduera kooperatibizatuaren bolumenaren arabera. Horrelako kasuetan, estatutuetan argi eta garbi finkatuko dira botoa emateko eskubidea banatzeko irizpideak. Boto pluralen batura ezin izanen da kooperatibaren boto guztien erdira iritsi.

Boto pluralen titular diren bazkideek eskubide horri uko egin ahalko diote, dela batzar jakin batean, dela edozein bozketatan, eta horrenbestez boto bakar bat erabiliko dute.

#### **67. artikulua.** Etxebizitza kooperatibak.

1. Etxebizitza kooperatibak dira irabazi asmorik gabeko pertsona fisikoek nahiz juridikoek osatzen dituztenak, bazkideei etxebizitza, zerbitzuak eta instalazio osagarriak eskaintzeko asmoz edo elementu komun erabilera eta gozamena antolatzeko asmoz.

Bazkide bakar bat ere ezin izanen da herri berean kooperatibek sustatutako etxebizitza bat baino gehiagoren titular izan, ezertan ukatu gabe gai horri buruz Familia Ugarien Legeak babestutako eskubideak.

2. Etxebizitza eta lokalen jabetza edo haien erabilera eta gozamena bazkideei esleitu edo lagatzeko, zuzenbidean onartutako edozein titulu erabili ahalko da. Kooperatibak beretako gordetzen badu jabetza, bazkideek haiek erabili eta gozatzeko arauak ezarriko dira estatutuetan, baita bazkideen eta kooperatibaren gainerako eskubide eta betebeharrak ere.

Nolanahi ere, "inter vivos" egintzen bidez egiten diren etxebizitzaren lagapenetan, kooperatibak lehentasunez erosteko eskubidea izanen du, estatutuetan ezartzen den bezala, eta hala balitz, atzera eskuratzeko eskubidea ere, salbu ezkontidearen eta bazkidearekin bizi diren ahaideen alde egiten denean.

3. Bazkidearen baja gertatzen bada, emandako zenbatekoen itzulketa egitean, estatutuetan ezartzen diren kenkariak aplikatu ahalko dira.

4. Zuzendaritza Kontseiluko kideek ez dute inolaz ere karguagatik ordainsaririk edo konpentsaziorik hartuko, ezertan ukatu gabe sortzen zaizkien gastuen ordaina hartzeko eskubidea.

**68. artikulua.** Kontsumitzaile eta erabiltzaileen kooperatibak.

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen kooperatibak dira pertsona fisikoek ondasunak edo zerbitzuak emateko osatzen dituztenak, bazkideen eta haien familien erabilera eta kontsumorako.

Kooperatiba horiek bazkideei eskaintzen dizkieten ondasunak edo zerbitzuak ekoitzi ahalko dituzte, betiere haien izaera espezifikoa galdu gabe.

Kooperatibak bere bazkideei banatzen dizkien ondasun eta zerbitzuen hornidura ez da ondare-eskualdaketatzat hartuko.

#### **69. artikulua.** Kreditu kooperatibak.

Kreditu kooperatibak dira kredituko entitateei dagozkien jardueren bidez beren bazkideen eta hirugarrenen behar finantzarioak estaltzea helburu duten sozietateak, betiere foru lege honen arabera eta Kreditu Kooperatibei buruzko maiatzaren 26ko 13/1989 Legearen arabera eratu badira.

Horrelako kooperatibek aktiboko eta pasiboko eragiketak egiten dituzte, mota guztietako funtsen ezarpenak onartzeko gaitasuna izanen dute eta behar diren banka zerbitzu guztiak egiten dituzte, baita beren helburuak lortzeko egokiak diren bestelako zerbitzuak ere.

Kreditu kooperatibek "Nekazarien Kutxa" izena hartuko dute haien helburu nagusia landa inguru-ean finantza zerbitzuak eskaintzea baldin bada, pertsona edo entitateak edozein izanda.

Kooperatiba hauen eraketa, funtzionamendua, jarduna eta garapena foru lege honetan eta aplikagarri diren xedapenetan ezarritakora makurtuko dira.

#### **70. artikulua.** Zerbitzu kooperatibak.

Zerbitzu kooperatibak dira pertsona fisiko edo juridikoek osatzen dituztenak beren bazkideen lanbide jarduna errazten duten eragiketa eta jarduera batzuk egiteko, hain zuzen beste inongo kooperatibaren berariazko helburuetan agertzen ez direnak.

Zerbitzu kooperatibatzat hartuko dira, halaber, bere kasa aritzen diren profesional edo artistek osatzen dituztenak, baldin eta haien helburua bazkideen lanbide jarduera errazteko zerbitzuak eta eragiketak egitea bada. Azkeneko kasu horretan, lanbide zerbitzuen kooperatiba izena hartuko dute.

Foru lege honetako 63. artikuluko 5. idatz-zatian aurreikusitako printzipioekin bat, estatutuetan Batzar Orokorrerako boto ponderatua ezarri ahalko da, bazkide bakoitzak jarduera kooperatibizatu-etan duen parte-hartzearen bolumenaren arabera.



**71. artikulua.** Irakaskuntzako kooperatibak.

Irakaskuntzako kooperatibak dira haien helburua irakaskuntzako jakintza arloko jarduna izan eta antolatzea edo prestakuntza teknikoa, arte mailakoa nahiz kirolekkoa edo beste edozein bada.

Irakaskuntzako kooperatibak kontsumitzaileen eta erabiltzaileen arloko araubideari lotuko zaizkio baldin eta bazkideak gurasoak, ikasleak edo haien legezko ordezkariak badira, eta lan elkartuaren arloko araubidera bazkideak irakasleak eta ikastetxeetako langile ez-irakasleak badira.

**72. artikulua.** Aseguru kooperatibak.

Aseguru kooperatibak dira aseguruaren arloan aritzeko helburua dutenak.

Nolanahi ere den, kapitalei, bermeei, oinarri teknikoari eta aseguru mota desberdinetan aritzeko ezarrita dauden gainerako aferei buruzko arauak bete behar dira.

**73. artikulua.** Garraio kooperatibak.

Garraio kooperatibak dira garraio enpresen titullarrek edo pertsonen zein gauzen garraioko edo garraio mistoko jardueretan aritzen diren profesionalek osatzen dituztenak, bazkideak pertsona fisikoak edo juridikoak izan, haien helburua beren bazkideen ustiapenak teknikoki eta ekonomikoki hobetzea bada edo bazkideei, helburu horrekin, zerbitzuak eta hornigaiak eskaintzea.

**74. artikulua.** Osasun kooperatibak.

Osasun kooperatibak dira beren bazkideen edo aseguratuaren eta haien onuradun direnen osasun arloko arriskuak estaltzea helburu dutenak.

**75. artikulua.** Hezkuntzako kooperatibak.

Hezkuntzako kooperatibak dira ikastetxe bateko nahiz gehiagoko ikasleek osatzen dituztenak, betiere haien helburua ikastetxearen jardunerako eta bazkideen aisiarako beharrezkoak diren ondasun eta zerbitzuak lortzea baldin bada.

**76. artikulua.** Gizarte ongizateko kooperatibak.

Gizarte ongizateko kooperatibak dira beren bazkideei gizarte laguntza ematea helburu dutenak, hain zuzen ezgaitasunen bat dutenei, familiaren aldetik eta diru aldetik gabeziak dituzten adingabe eta adineko pertsonari eta gizartearen bazterturik dauden talde edo gutxiengo etnikoetako kideei, haien biziraupena eta garapena lortzeko ondasun eta zerbitzuak eskainiz.

Horrelakotzat hartuko dira, halaber, aipatutako giza-taldeen gizarteratzea helburu dutenak, baterako enpresa araubidean prestatzen dituzten produktua antolatuz, sustatuz eta bideratuz.

Artikulu honen lehenengo lerroaldean agertzen diren kooperatibek kontsumitzaile eta erabiltzaileen kooperatiben izaera hartuko dute eta bigarren lerroaldean agertzen direnek, berriz, lan elkartuko kooperatiben izaera. Horrenbestez, subsidiarioki, foru lege honetan bakoitzarentzat xedatutakoa aplikatuko zaie.

Horrelako kooperatibetan bai Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak bai Nafarroako toki entitate orok hartu ahal dute parte bazkide gisa, eta horretarako, estatutuaren agintzen diren sozietatearen kapitalari egin beharreko ekarpen ekonomikoak egiteaz gain, ordezkari bat izendatuko dute, entitatearen kudeaketa organoari laguntza eskaintzeko eta haren jardun egokian laguntzeko.

**II. KAPITULUA****Gizarte ekimeneko kooperatibak, kooperatiba mistoak eta integralak****77. artikulua.** Gizarte ekimeneko kooperatibak.

1. Gizarte ekimeneko kooperatibatzat hartuko dira, edozein motatakoak izanda ere, sozietatearen helburua ondoko hauetako bat duten irabazi asmorik gabeko kooperatibak:

a) Haurren eta gazteen babesarekin zerikusia duten laguntza arloko gizarte zerbitzuak ematea, zaharrei laguntza ematea, hezkuntza berezia, minusbalotasuna duten pertsonari laguntza ematea, gutxiengo etnikoari, errefuxiatuei, babestu politikoei, partekatu gabeko familia zamak dituzten pertsonari, preso ohiei, alkoholikoei eta toxikomanoei laguntza ematea, gizarteratzea eta delinkuentziari aurrea hartzea.

b) Edozein motatako gizarte bazterkeria jasaten duten pertsonen laneratzea helburu duten jardura ekonomikoak garatzea eta, oro har, merkatuak asetzen ez dituen gizarte beharrei erantzutea.

2. Ondorio horietarako, irabazi asmorik gabeko kooperatibatzat hartuko dira ondoko baldintzak beren estatutuaren espresuki jaso eta betetzen dituztenak:

a) Ekitaldi ekonomiko batean izaten diren irabaziak ezin banatu izatea bazkideen artean.

b) Bazkideek sozietatearen kapitalari eginiko ekarpenek, bai nahitaezkoek bai borondatezkoek, ezin sorrarazi izatea diruaren legezko korritua baino korritu handiagorik; hori, halere, ez da oztopo izanen ekarpen horiek gaurkotzeko.

c) Zuzendaritza Kontseiluko karguak ordainsaririk jaso gabe betetzea; hori, halere, ez da oztopo

izanen kontseilukideen lanak sortutako gastuengatik bidezkoak diren ordain ekonomikoak jasotzeko.

d) Bazkide langileen edo, kasua bada, lan-bazkideen eta besteren konturako langileen ordainsariak ez izatea altuagoak sektore horretako besteren konturako langileei aplikatzakeoa zaien lan hitzarmenean, bakoitzak lortutako maila profesionalaren eta jardueraren arabera, ezarritako ordain-sarien 100eko 150 baino.

3. Entitate eta erakunde publikoek bazkide gisa parte hartu ahalko dute estatutuei jarraikiz ezarritako den moduan.

4. Gizarte ekimeneko kooperatibei, zein mota-tako kooperatiba diren, hari aplikatzekoa zaion araudia aplikatuko zaie.

5. 2. idatz-zatian azaldutako baldintzak betetzen dituzten kooperatibek, edozein motatakoak izanda ere, beren izenean agertuko dute "gizarte ekimena" aipamena, betiere Nafarroako Kooperatiben Erregistroak kalifikazio hori eman badie.

6. Artikulu honetan araututako kooperatibek, gizarte zerbitzuen alorrean jarduteko asmoa baldin badute, une bakoitzean dagoen edo gizarte zerbitzuen alorreko araudi sektorialak ezartzen duen erregistroan izena eman beharko dute.

#### **78. artikulua.** Kooperatiba mistoak.

1. Kooperatiba mistotzat hartuko dira Batzar Orokorreko boto eskubidea bazkide gutxiengo batek jarritako kapitalaren arabera izatea onartzen dutenak, dela modu eksklusiboan, dela bazkide horiei lehentasuna emanaz. Kapital hori kontuko idaztoharren edo tituluen bidez egonen da ordezkaria, balore-merkatua arautzen duen legediaren arabera.

2. Batzar Orokor horietako boto eskubidea honela banatuko da:

a) Botoen ehuneko 51 gutxienez kooperatibako bazkideei esleituko zaie, estatutuetan finkatzen den portzioaren arabera.

Horren ondorioetarako, kooperatibako bazkide-tzat hartuko dira bazkide izaera kooperatibaren jardueran benetan duten parte-hartzetik zuzenean eskuratu duten pertsona fisiko edo juridikoak, foru lege honetako II. tituluan araututako kooperatiba motaren batean langile, erabiltzaile edo laguntzaile direlako, edo harekin beste lotura mota bat dutelako.

b) Botoen ehuneko 49, gehienez, boto eskubidea atxikia duten zati sozialen titularrak diren bazkideen artean banatuko da (ehuneko zehatza estatutuetan finkatuko da). Estatutuetan hala

aurreikusiz gero, sozietatearen zati horiek merkatuan salerosi ahalko dira libreki eta, horrenbestez, zenbaki honetako a) letran adierazitako bazkideek erosi ahalko dituzte, lehentasunez erosi ere, estatutuetan hala finkatzen bada.

3. Botoa atxikia duten zati sozialen kasuan, bai titularren eskubide eta betebeharrak, bai ekarpenen araubidea estatutuetan arautuko dira, eta, osagarri moduan, sozietate anonimoen legedian akzioei buruz xedatutakora joko da.

4. Bi bazkide multzo horietako bakoitzak urteko soberakinen banaketan (positiboa edo negatiboa) izanen duen parte-hartzea, bi multzo horietako bakoitzak duen boto portzentajearen arabera izanen da, 2. idatz-zatian ezarritakoari jarraikiz.

Botoa atxikia duten zati sozialen jabeei egotzi ahal zaizkien soberakinak foru lege honetan ezarritako irizpide orokorren arabera banatuko dira.

5. Bazkide multzo baten eskubide edo betebeharretan eragina duen edozein araubide aldaketa egiteko, kasuan kasuko bazkide taldearen gehien-goaren adostasuna beharko da. Adostasun hori Batzar Orokorrean bereiz eginen den bozketa baten bidez eskatu ahalko da.

6. Derrigorrezko funtsen zuzkidurari eta horien erabilgarritasunari dagokienez, foru lege honetan ezarritako arau orokorretara joko da.

7. Kooperatiba mistoak lege ezarrita dagoen kooperatiben sailkapeneko motaren batean sartuko dira, eta kooperatibako bazkideen eskubideen ondorioetarako, atxikita dauden kooperatiba mota horrek dituen berariazko arauen menpe izanen dira.

#### **79. artikulua.** Kooperatiba integralak.

Kooperatiba integralak dira sozietate bakar batean kooperatiba mota guztietako helburuak bilzen dituztenak. Horrez gainera, bazkide mota bakoitzak Batzar Orokorreko botoen ehuneko hamar izan beharko du, gutxienez.

Halakotzat hartuko dira, orobat, lan elkartuko kooperatibak, botoen ehuneko 49, gehienez, bertako bazkide erabiltzaileen esku baldin badago.

Kooperatiba integraletako bazkide mota bakoitzak atal gisa jardun ahalko du.

Kooperatiba integraletako sozietate organoetan kooperatiban dauden bazkide mota guztien ordezkariak egon beharko dira. Estatutuetan lehendakariaren edo lehendakariordearen kargua bazkide mota jakin bateko ordezkariarentzat erreserbatzea jaso ahalko da.

### III. KAPITULUA

#### Bigarren mailako eta maila handiagoko kooperatibak eta kooperatiba-taldeak

**80. artikulua.** Bigarren mailako eta maila handiagoko kooperatibak. Kooperatiben arteko akordioak.

1. Mota bereko edo desberdineko bi kooperatiba edo gehiago elkartu daitezke beren borondatez, eta horren ondorioz bigarren edo maila handiagoko kooperatibak sortzen dira.

Kooperatiba horretako bazkideak izan daitezke, sozietate kooperatiboez gainera, lan-bazkideak eta, orobat, edozein entitate eta pertsona juridiko, publikoak eta pribatuak, betiere antzeko interes edo beharrak badituzte.

Sozietate kooperatibo ez diren bazkideen botoak bigarren mailako edo maila handiagoko sozietate kooperatiboan guztira dauden botoen ehuneko 40 izanen dira gehienez, baina estatutuetan ehuneko baxuago bat ezar daiteke.

2. Batzar Orokorrean pertsona juridiko diren bazkideen ordezkari bana izanen da eta, halakorik badago, lan-bazkideen ordezkari bat.

Lan-bazkideen ordezkaria aukeratzeko, entitatearen estatutu sozialetan adierazitakoari jarraikiko zaio.

Pertsona juridikoen ordezkariaren boto eskubidea pertsona juridiko horiek bigarren mailako edo maila handiagoko sozietate kooperatiboaren jardura kooperatibizatuan duten parte-hartzearen araberakoa izanen da.

Lan-bazkideen ordezkariaren boto eskubidea bazkide horiek bigarren mailako edo maila handiagoko sozietate kooperatiboaren jardura kooperatibizatuan duten parte-hartzearen araberakoa izanen da, baina foru lege honen 21.2 artikuluan ezarritako ehuneko gaintitu gabe.

Sozietate kooperatiboa ez den entitate baten boto kopurua ez da sozietatearen botoen heren batetik gorakoa izanen.

3. Bigarren mailako edo maila handiagoko kooperatibak zuzendaritza kontseilu batek administratuko ditu. Kontseilukideak bazkide diren entitateek aurkezturiko hautagaien artetik aukeratuko dira.

4. Kooperatiba mota hauen erantzukizuna beti mugatua izanen da.

5. Bigarren mailako eta maila handiagoko kooperatiben araubidea estatutuetan, foru lege honetan eta aplikatzekoak zaizkien gainerako xedapenetan ezarritakoa izanen da.

6. Arestiko idatz-zatietan xedatutakoa gorabehera, kooperatibek beste batzuekin kooperatiben arteko akordioak sina ditzakete, sozietatearen helburuak betetzearren.

Akordio horien bidez, kooperatibek eta bazkideek hornidura eragiketak, produktuen entregak eta zerbitzuak egin ahalko dituzte akordioa sinatzen duen beste kooperatiban. Horrelakoetan, faktura eta likidazioak beste kooperatibari edo beren bazkideei zuzenean egin beharko dizkiete eta eragiketa horiek norberaren bazkideekin egiten diren eragiketa kooperatibizatua bezalakoak izanen dira. Horrenbestez, kooperatibaren onura eta itzulkiniei dagokienez, eskubide berberak sortuko dituzte.

Horrez gainera, zilegi izanen da akordioa sinatu duten kooperatibetako bazkideei bidezko ekarpenak edo funtsak sartzeko eskatzea, beharrezkoak diren inbertsioei aurre egiteko. Ekarpene horiek kooperatibak edo bazkideek beraiek egin ahalko dituzte.

#### 81. artikulua. Kooperatiba-taldea.

1. Foru lege honen ondorioetarako, kooperatiba-taldea da mota bateko zein besteko sozietate kooperatiboen sail batek osatutako multzoa. Entitate taldeburu bat izan beharko dute, elkartutako kooperatiba guztiek nahitaez bete beharreko jarraibideak eman eta ahalmenak erabiliko dituen, hori guztia ahalmen horien esparruan erabaki bateratuak hartzeko.

2. Jarraibideak entitatearen kudeaketaren, administrazioaren edo agintearen edozein esparrutan aplikatzekoak izan daitezke, honako hauek ere barne daudela:

a) Oinarrizko kooperatibetan estatutu eta erregelamendu arau komunak ezartzea.

b) Oinarrizko entitateen artean harreman asoziatiboak ezartzea.

c) Aldizka baliabideak jartzeko konpromisoa hartu beharra, entitate bakoitzaren enpresa-bilakeraren edo emaitzen kontuaren arabera kalkulatuak.

3. Kooperatiba-taldean sartzeko, oinarrizko entitate bakoitzaren hasierako erabakia beharko da, bakoitzaren eskumenean eta funtzionamenduari araei jarraikiz.

4. Taldearen aurrean hartzen diren konpromiso orokorrak idazki batean formalizatu beharko dira, dela entitate taldeburuaren estatutuetan (sozietate kooperatiboa bada), dela beste kontratu-agiri batean, zeinak gero eskritura publiko egin beharko den.

Kontratu-agiri horretan nahitaez kontratuaren iraupena, aldatzeko prozedura, elkartutako sozietate kooperatibo bat bereizteko prozedura eta entitate taldeburuari esleitu zaizkion ahalmenak jaso beharko dira.

Konpromiso horiek aldatu, handitu edo bertan behera uzteko, entitate taldeburuaren organo gorenaren erabakia beharko da.

5. Talde batean sartzeko akordioa Nafarroako Kooperatiben Erregistroan jasoko da, kasuan kasuko sozietate kooperatiboari dagokion orrialdean.

6. Talde batean sartuta dauden sozietate kooperatiboek hirugarrenekin zuzenean egiten dituzten eragiketen ondoriozko erantzukizuna ez da talde osora hedatuko, ez eta taldekide diren gainerako sozietate kooperatiboetara ere.

### III. TITULUA

#### Kooperatiben elkarketa eta sustapena

#### I. KAPITULUA

##### Kooperatiben elkarketa

##### 82. artikulua. Elkartzeko askatasuna.

Kooperatibek elkarteak, batasunak eta elkarketa oinarria duten beste entitate batzuk osa ditzakete, haien interesak gordetzeko.

Eratzen diren elkarketa entitateek nortasun juridikoa izanen dute eta beren estatutuak idatziko dituzte, autonomia osoa izanen dutela.

Estatutuetan jaso beharko da, gutxienez, entitatearen izena, kideen kopurua, esparrua, helburua, gobernu eta ordezkari organoak, baliabide ekonomikoen erreferentzia eta kideen onarpen eta baja sistema eta araubidea.

##### 83. artikulua. Elkarkeak eta batasunak.

1. Elkarke bat, batasun bat nahiz bestelako entitate bat osatzeko gutxienez bost kooperatiba beharko dira bildu.

Elkarkeek interes komunak dituzten kooperatibak bilduko dituzte.

Batasunek sektore edo mota bereko kooperatibak bilduko dituzte.

2. Elkarkeek, batasunek eta gainerako entitateek beren estatutuetan zehaztu beharko diren xedeak, ezaugarriak eta araubideak izanen dituzte, besteak beste, ondoko hauek:

a) Elkartzten diren kideen ordezkari izatea, estatutuetan ezartzen denari jarraikiz.

b) Elkartzten diren sozietate kooperatiboaren artean, edo haien eta kideen artean, sor daitezkeen gatazketan adiskidetzeko lanak egitea.

c) Bere bazkideen interesen mesedetan aholkularitza, auditoretza, laguntza juridiko nahiz tekniko zerbitzuak edo behar direnak antolatzea.

d) Administrazio publikoak eskatzen dionean, haren instituzio eta erakundeetan parte hartzea, bai eta bestelako instituzio sozioekonomikoetan ere, legezko araubidea hobetzea helburu.

e) Kooperatiben arloko sustapena eta prestakuntza bultzatzea.

f) Antzeko izaera duen beste edozein jarduera aurrera eramatea.

3. Halaber, elkarkeek, batasunek eta gainerako entitateek lankidetzako harremanak izan ditzakete Nafarroan edo beste autonomia erkidego batzuetan jadanik dauden beste batzuekin, bai eta nazio barreneko zein nazioarteko beste batzuekin ere.

##### 84. artikulua. Federazioak.

Kooperatiben federazioak, esparrua Foru Komunitatekoarena bera izanen baitute, honako hauek osatuko dituzte:

a) Kooperatiben batasunak, baldin eta haien esparrua federazioarena baino handiagoa ez bada.

b) Sozietate kooperatiboak, sozietatearen helbidea Nafarroan badute baina hartakoa den batasun batekoak ez badira. Sozietate kooperatibo bat ere ez daiteke federazio bat baino gehiagotan egon.

Kooperatiben federazio bat eratu eta abian jartzeko, beharrezkoa da, zuzenean edo kooperatiben batasunen bidez, gutxienez hamar kooperatiba biltzea eta denak mota berekoak ez izatea.

Haren izenean Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde esparruari buruzko aipamena egin ahal izateko, erregistratuak eta desegin gabe dauden kooperatiben ehuneko 30, gutxienez, bildu beharko dituzte.

Federazioaren izenean jarduera edo sektore jakin baten aipamena agertzen bada, jarduera edo sektore horretara emanak diren eta erregistratuak eta desegin gabe dauden kooperatiben ehuneko 30, gutxienez, bildu beharko dira.

##### 85. artikulua. Lankidetzako beste mota batzuk, kooperatibak ez direnak.

1. Kooperatibek, beren artean nahiz gainerako pertsona fisiko eta juridikoekin, hitzarmenak sina ditzakete zerbitzuak, lehengaiak, produktuak eta

gaiak batak besteari lagatzeko, konpentsazio funtsak sortzeko, itundutako eragiketetan zuzendaritza bakarra izateko, elkarren bermerako sozietateak sortzeko eta, kooperatiben xedeak erraztu eta bermatzearren, bestelako egintza edo eragiketak egiteko.

2. Kooperatibak beste pertsona fisiko nahiz juridikoekin elkartu daitezke, baita haietan parte hartu ere, beren helburuak hobeki lortu ahal izateko.

3. Arestiko zenbakietan agertu diren kasuetan kooperatibek lortzen dituzten etekinak derrigorrezko erreserba funtsetarako izanen dira.

#### **86. artikulua.** Erregistroa.

Foru lege honen babesean eratzen diren batasun eta federazioak Nafarroako Kooperatiben Erregistroan inskribatuko dira eskritura publikoaren bidez.

Inskribatu ondoren, nortasun juridikoa eta jarduteko ahalmen osoa izanen dute, eta estatutuetan eta foru lege honetan eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan ezarritakoaren arabera jokatu dute.

Inskripzioa foru lege honen 16. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako prozedurari jarraikiz egin beharko da.

## **II. KAPITULUA**

### **Kooperatiben sustapena**

**87. artikulua.** Nafarroako Kooperatiben Kontseilua.

#### 1. Xedeak eta helburuak.

Nafarroako Kooperatiben Kontseilua kooperatiben arloan aholku emateko Nafarroako Foru Komunitateak duen organoa da.

#### 2. Eginkizunak

a) Nafarroako kooperatibismoa arautu, bultzatu, sustatu eta garatzeari buruzko legezko nahiz bestelako neurriak aztertu, diktatu, proposatu edo gomendatzea.

b) Kooperatiben artean sortzen diren edo haien elkarketa esparruan eragina duten gatazketan parte hartzea.

c) Kooperatibismoa garatu eta sustatzeko programen plangintzan eta exekuzioan laguntzea, baita kooperatibei buruzko prestakuntza eta heziketa programetan ere.

d) Kooperatiben deskalifikazioari buruz tramititzen diren espedienteetan entzuna izatea.

e) Kontseiluaren erregelamenduan ezartzen diren gainerako eginkizunak.

#### 3. Atxikipena

Nafarroako Kooperatiben Kontseilua Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuari atxikita izanen da.

#### 4. Kideak

Nafarroako Kooperatiben Kontseiluko kideak Nafarroako Gobernuak eta Kooperatiben Batasunek hautatutako ordezkariak izanen dira (alde bakoitzetik kide kopuru bera), eta organo parekidearen izaera izanen du, gutxienez hamar kide izanen dituena.

Kooperatiben Kontseiluko lehendakaria Nafarroako Gobernuak izendatuko du kontseilukideen artean, Kontseiluak berak proposatu ondoren.

Proposamen hori kontseilukideen gehiengoak egin beharko du. Lehenbiziko hiru bozketetan behar den gehiengo lortzen ez bada, Kooperatiben Kontseiluko lehendakaria zuzenean izendatuko du Nafarroako Gobernuak.

### **Xedapen gehigarriak**

**Lehenengo xedapen gehigarria.** Nafarroako Kooperatibei buruzko Foru Legearen aipamenak.

Indarreko legedian Nafarroako Kooperatibei buruzko uztailaren 2ko 12/1996 Foru Legearen gainean egiten diren aipamen guztiak foru lege honen gainekoak direla xedatzen da.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Sozietatearen kapitala gaurkotzea.

Nafarroako Gobernuak, berez edo Nafarroako Kooperatiben Kontseiluak proposaturik, sozietate kooperatiboak eratzeko behar den sozietatearen gutxienerako kapitalari buruz 7. artikulua aipatzen dituen zenbatekoak gaurkotu ahal ditu, betiere iruditzen bazaio sozietate kooperatiboek mugitu behar duten koordenada ekonomikoetarako gutxi-egi direla zenbateko horiek.

Gaurkotzeko proposamena Nafarroako eragile ekonomiko eta sozialen ustez objektiboak eta denentzat onargarriak diren hazkunde ekonomikoaren indizeetan oinarritu beharko da.

**Hirugarren xedapen gehigarria.** Estatutuen aldaketa.

Estatutuak aldatuz gero, foru lege honen xede diren sozietate kooperatiboek lege honetan xedatutakora egokitu beharko dituzte, Batzar Orokorrek hartutako erabakiaren bitartez. Aldaketa horretarako, ematen diren baliozko boto guztien erdiak gehi bat beharko dira.

### **Xedapen iragankorra**

**Xedapen iragankor bakarra.** Foru lege honetan indarra hartzerako hasiak diren prozedurak.

Foru lege honek indarra hartu aitzin kooperatiben gainean hasitako prozedurak tramitatzen hasi ziren egunean indarra zuten xedapenei jarraikiz tramitatu eta ebatziko dira.

### **Xedapen indargabetzailea**

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Arauen indargabetzea.

Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan xedatutakoaren aurka dauden maila bereko nahiz txikiagoko xedapen guztiak eta, zehazki, Nafarroako Kooperatibei buruzko uztailaren 2ko 12/1996 Foru Legea.

### **Azken xedapenak**

**Azken xedapenetan lehena.** Gizarte ekimene-ko kooperatiben araubide fiskala.

2006. urtea bukatu baino lehen, Nafarroako Gobernuak kooperatiben araubide fiskala arautzen

duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legea aldatzeko proiektua bidaliko dio Nafarroako Parlamentuari, gizarte ekimeneko kooperatiben araubide fiskala ezartze aldera.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Foru lege hau indarreko estatutueta aplikatzea.

Foru lege honek indarra hartzen duenean sozietate kooperatiboek dituzten estatutuen edukia ezin izanen da aplikatu foru lege honen kontra baldin badago. Horrenbestez, foru legean dauden debeku edo aginduek estatutueta xedatutakoa aldatu edo osatzen dutela ulertuko da.

**Azken xedapenetan hirugarrena.** Nafarroako Gobernuari baimena ematea.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzan.

**Azken xedapenetan laugarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.



---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Adierazpen instituzionala, Ekialde Hurbileko egoera dela eta.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2006ko irailaren 18an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Ekialde Hurbileko bizikidetzaren elkarrizketan, nortasun desberdinen aniztasunaren errespetuan eta pertsona guztien berdintasunean oinarritu behar dela, edozein izanda ere haien nortasun nazional, erlijioso edo etnikoa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nazio Batuen Erakundeari eskatzen dio esku har dezan Palesti-

nako herriak pairatzen duen gatazka historikoari behin betiko konponbidea sustatzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak nazioarteko komunitatea premiatzen du beharrezkoa den giza laguntza guztia eman dezan, Libanoko eta Palestinako herritarrak gatazkaren ondorioz jasaten ari diren egoera arintzeko”

Iruñean, 2006ko irailaren 18an

Lehendakaria, Rafael Gurrea Induráin

---



---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak FMko bi lizentzien adjudikazioa berretsi izanari buruzkoa, iragan abenduaren 22an emandako epaiak aurreko adjudikazioa baliogabetzat jotzen bazuen ere.**

*FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak ondoko galdera egin du: "Ekonomia eta Ogasun kontseilariak FMko bi lizentzien adjudikazioa berretsi izanari buruzkoa, iragan abenduaren 22an emandako epaiak aurreko adjudikazioa baliogabetzat jotzen bazuen ere." Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko irailaren 18an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko irailaren 18an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengo babesean, honako galdera hau egin du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Parlamentu-talde honek jakin izan du, komunikabideen bidez, Nafarroako Gobernuako lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilari Francisco José Iribarren jaunak berretsi berri duela FMko bi lizentzien adjudikazioa, joan den

abenduaren 22an emandako epaiak aurreko adjudikazioa baliogabetzat jotzen bazuen ere.

Hala eta guztiz ere, gobernuak lizentziak adjudikatu dizkie adjudikazioa baliogabetu zitzaizen irratiei. Prozedura irregulartasunez beterik egon da, eta tartean epai judizialik ere egon da, eta, oro har, prozedura iluna izan da; horrek kritikak sortu ditu, eta kritika horien arabera, prozedura guztia gobernuaren azpilana izan da euskaraz emititzen duen irratia FMko lizentzia bat lor dezan galarazteko asmoz. Ezinbestekoa da gogoraraztea Sanz jaunak, Eusko Alkartasunak eskatutako agerraldi batean, isilean gorde zuela kontratazio-mahaiak egin zuen lana; izan ere, kontratazio-mahaiak joan den apirilean eman zuen irizpena.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek honako galdera hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Kontratazio-mahaiaren proposamena apirilean izanik,

– Zergatik sinatu da irailan?

– Kontseilari jaunak bere egiten al ditu kontratazio-mahaiak erabakia hartzeko oinarri gisa izan duen Doxaren txostenak biltzen dituen ondorio guzti-guztiak?

Iruñean, 2006ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

## **Galdera, Osasun kontseilariak Tuterako Reina Sofía Ospitalean alergologia zerbitzua ezartzeko eskaerari erantzuteko eginiko urratsei buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko irailaren 18an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Osasun kontseilariak Tuterako Reina Sofía Ospitalean alergologia zerbitzua ezartzeko eskaerari erantzuteko eginiko urratsei buruz foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko irailaren 18an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras andreak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Aurtengo maiatzean, alergía arazoak dituzten Erriberako pertsona talde batek sinadurak bildu eta Nafarroako Osasun Departamentuan aurkeztea erabaki zuen –10.000 sinadura bildu zituzten–, erreferentziatzeko ospitaletan alergologia probak egiteko aukera eskatzeko, Iruñera joan beharrik ez izateko.

Kaltetuetako bi pertsonen kontseilariarekin izandako elkarrizketan, departamentuan egindako bileran, Kutz andreak adierazi zien txertoak eskatutako moduan ematearen gaia aztertuko dutela.

Bileran parte hartu genuenok adierazi genion irailean azterketa horri buruzko informazioa eskatuko genuela; hori dela eta, galdera honi erantzutea nahi dugu:

Zer urrats egin ditu Osasun kontseilariak 10.000 sinaduraren babesarekin eginiko eskakizunari erantzuteko, hain zuzen, Tuterako Reina Sofía Ospitalean alergologia zerbitzua ezartzeko?

Iruñean, 2006ko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, ehiza-espezieak harrapatzeak eragindako zirkulazio istripuen kasuetarako erantzukizun sistema bat ezartzen duen Nafarroako ehizari eta arrantzari buruzko Foru Legearen 86. artikuluan oinarrituta izapidetu diren espedientei buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko irailaren 18an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galdera, ehiza-espezieak harrapatzeak eragindako zirkulazio istripuen kasuetarako erantzukizun sistema bat ezartzen duen Nafarroako ehizari eta arrantzari buruzko Foru Legearen 86. artikuluan oinarrituta

izapidetu diren espedientei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko irailaren 18an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengo babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak, 2005eko abenduaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako ehizari eta arrantzari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Lege horren 86. artikulua erantzukizun sistema bat ezartzen du ehiza-espezieak harrapatzeak eragindako zirkulazio istripuen kasuetarako.

Aipatu foru legea onetsi zenetik iragan den denbora kontuan hartuta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– Zenbat espediente izapidetu dira aipatu artikuluan oinarrituta?

– Zenbat espediente ebatzi dira?

– Zein da Nafarroako Gobernuak ordaindutako kalteordainen zenbatekoa?

Iruñean, 2006ko irailaren 13an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

---

**I saila:**  
**PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK**

---

## **Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, Nafarroako Foru Komunitatearen 2006ko egoerari buruzko eztabaida egiteko.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko irailaren 18an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Tramitera onartzea Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaida egin dadin eskatzen duena, Osoko Bilkurak eztabaida dezan, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. bis artikuluan xedatuarekin bat etorritz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2006ko irailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, Nafarroako Foru Komunitatearen 2006ko egoerari buruzko eztabaida egiteko**

Nafarroako Gobernuak 2006ko irailaren 11n egindako bilkuran erabaki zuen Nafarroako Parlatuentuari eskatzea Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaida egin dezan.

Legegintzaldiaren azken zatira heldu gara, eta bistakoa denez, aldi horretan hauteskondeekin zerikusia duten alderdiak gure jarduna lagunduko duen paisaia politikoaren zati izanen dira. Edozein modutan ere, Gobernuaren arduraren ikuspuntutik, ekimenen lehentasuna herritarren onura eta gure autogobernua osatzen duten erakundeen defentsa lortzera bideratuta egonen da.

Nafarroako kontu publikoen sendotasunak eta kaudimenak ahalbidetzen digute zerga presioa

arinduko duen zerga-sistemaren erreforma bultzatzea; hala ere, hori ez da eragozpena izanen gastu sozial handiaren iraunkortasunari eusteko. Gaur egun, gastu hori Espainiako edozein erkidegotako per capita gastua baino askoz handiagoa da.

Bestalde, errepide azpiegituren eraikitze prozesuak azkartu eginen dira, edukiera handiko bideen kasuan, eta lurralde intereseko errepideei dagokienez, berriz, hainbat jarduketa gauzatuko dira eskualdeko eta lurraldeko ardatzetan, baita zeharbide eta saihebidetan ere; izan ere, ukitutako udalek urteak daramatzate lan horiek egiteko eskatzen.

Erakundeen arloan, gobernu zentralaren eta ETAREN arteko elkarrizketa prozesu deiturikoak, haren norainokoa eta emaitza ezagutzen ez baditugu ere, politika baldintzatuko du.

Kontzertazio sozialak eta enpresa inbertsioei laguntzeko politikak Europar Batasunean zehaztutako inguru ekonomiko berrira egokitzeak etengabeko ahalegina egitera behartuko gaituzte, baita aurrerapena eta garapen ekonomiko eta soziala bermatuko dizkiguten proiektu handiak finantzatzeko formula berriak erabiltzera ere.

Betiko moduan, Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaida sosegua, zorrotzatsuna, errealismoa, imajinazioa eta ideiak kontuan hartuta egin behar da. Herritarrek izugarri eskertuko digute gure kezkek haien beharrezanekin bat egitea.

Asko lortu dugu orain arte, eta oraindik gehiago dago lortzeko.

Iruñean, 2006ko irailaren 11n

Nafarroako Gobernuko lehendakaria: Miguel Sanz Sesma